



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2015eko urriaren 15a | XXXV. urtea | 648. zenbakia

Gehigarri bereziak

Elizondoko Feriak eta Santu Guztien eguna

BERA → 19

Kottoren heriotzaren 10. urtemuga gogoratuko dute

ELGORRIAGA → 28

Onddo eta zizen kofrade berriak izendatu dituzte

BAZTAN → 34

Aroztegiko proiektuak zer erran sortzen segitzen du

SENPERE → 39

Larreko bertsularia omendu dute

Mikologialdia → 32



Leitzan, urriaren 24 eta 25ean



HAMABORTZ,
AMA BAT
NAFARROA
OINEZ 2015
BAZTAN

Dena prest Baztanen Nafarroa Oinez ospatzeko

Oinez Egunarekin borobilduko dute urte osoan egindako lana

→ 33

BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA | 25. urteurrenaren aitzakian, besta antolatu dute Lesakan



Jada mende laurden...
kantari bizitzea zer den!

ELKARRIZKETA | Estitxu AROTZENA → 3 / LESAKA → 20

Lurraren Eguna

Beran, urriko azken igandean

Barazki eta frutak, eskulangileak, barazki-opil, sagardo eta gasna lehiaketak, musika...

→ 19

Idoia ALTUNA | Entzumen urritasunaz solasean



Alaba gorra sortu zen eta inplantearen bitartez entzuten ikasten ari da.

ERREPORTAJEA → 4-5

BELATE-ALMANDOZ → 24

Arrisku handiko tunelak direla diote adituek

Tunel hauen erabilgarritasuna bermatzeko, epe laburrean segurtasun neurri osagarriak hartzea ezinbertzekoa da berriki egindako ikerketen arabera.

ZUGARRAMURDI → 36

Martikorena eta Iruñeko Orfeoia urriaren 24an

Gaueko 8etan hasita, ikuskizun paregabea izanen da lezeetan: Erramun Martikorena, Iruñeko Orfeoia, Mikel Markez, Baztan, Sunbilla eta Igantziko dantzariak...

ZOKETAK → 2



Txartela egiteko
deitu 948 63 54 58ra

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B
epemuga 04/2016
Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA
T 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
erran.eus

ZOZKETAK

**647. ALEKO
IRABAZLEAK:**

Kamiseta bat | **ONDDO TA PUNTO**

Miguel Iraola | **ALMANDOZ**

Karta Jolasa | **KATXIPORRETA**

Jon Leizeaga | **ZUBIETA**

Martiko lotea | **MARTIKO**

Lourdes Iriarte | **DONEZTEBE**

2 sarrera | **ZUGARRAMURDIKO SORGINEN LEZEAK**

Juan Fermin Goikoetxea | **EZKURRA**

2 sarrera | **DONOSTIAKO AQUARIUMA**

Braulio Elizetxe | **AMAIUR**

3 liburu | **IBAIZABAL Argitaletxea**

"Zonbi parkean harrapatuta" | **Mikele Unanua** | **IRUÑEA**

"Maddalenen usaina" | **Rosamari Iribarren** | **ARANTZA**

"Parkera!" | **Emilia Azkarraga** | **AZPILKUETA**

DESKONTUAK



DONEZTEBE | %10, oinetakoetan



BERA | %5, kopietan, enkuademazioetan
eta inprentako zenbait lanetan, 5€tik
gorako erosketetan



LEITZA | %15, bainugelako osagarrietan



LESAKA | %5, produktu guztietan



LEITZA | %10, 30€tik gora



LEITZA | %5, gozotegian 30€tik gora



BERA | %20, urteko abonuen matrikulan

KAMISETA BAT
Buatxabal
www.buatxabal.eu



5 SESIOKO BONOIA
Toki Ona Berako Udal Kiroldegia
www.urdisl.com



2 SARRERA
Irrisari Land
www.irrisarrieland.com

2 LIBURU SORTA | Erein argitaletxea
"Neskutalak" bildumako 2 liburu | "Munstroen kuxka" bildumako 2 liburu
www.erein.eus



2 PRODUKTU SORTA
Lanku
www.lanku.com



AQUARIUM



2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com

Duela 25 urte, 1990eko urrian sortu zen Bortzirietako bertso eskola. Mende laurden honetan, Nafarroako txapeldun suertatu diren hainbat bertsolari ez ezik, gai-jartzaileak,

bertso epaileak eta, orokorrean, bertsozaleak atera dira eskolatik. Gaur egungo Nafarroako Bertsozale Elkarteko presidentea den Alaitz Rekondo ere bertso eskolako ikasle izan zen

bere garaian. Urtemugaren aitzaki horrekin hainbat ekitaldi antolatu dituzte urriaren 24an. Orduan ikasle eta gaur egun irakasle den Estitxu Arozenarekin izan gara.

Estitxu AROZENA | Bortzirietako Bertso Eskola

«Hurrengo belaunaldiei bertsolaritza transmititzea da gure helburua»

A. AROZENA | LESAKA

Nola izan zen Bortzirietako bertso eskolaren hasiera?

Nafarroan apenas zegoen bertsolari gazterik eta bertsolari gazteen beharra izugarria zen. Bertzalde, Tantirumairu ikastolan bertsolaritza lantzen genuen taldetxo bat jarraitzeko interesaturik geunden, institutura iristean bertsolaritza alde batera uzten baitzen. Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenak, gaiari adarretatik heldu eta deialditxo bat egin zuten. Hasierako helburu nagusia bertsolariak sortzea izan zen.

Nafarroan lehenbiziko bertso eskola izan al zen Bortzirietakoa?

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen helduen taldetxo bat elkartzen zen orduan, baina gaztetxoei zuzendutako lehen bertso eskola izan zen. Lehen ikasturtean Ekaitza elkartearen elkartzen ginen, Arantzako talde handi bat animatu baitzen, Lesakako 6-7 ikaslerekin batera. Lehen ikasturtea aitzinera joan ahala, arantzarrak guttiago ziren eta Lesakako guztiek jarraitzen genuen. 1991-1992 ikasturtean Lesakako Arrano elkartearen elkartzen gino ginen.

Bertso irakaskuntzan gauzak aunitz aldatu dira 25 urteotan?

Bai, arlo gehienetan be-



ARGAZKIA: A. AROZENA

Estitxu Arozena, bertso eskolako Lesakako gaztetxoaren taldearekin.

zala. Gaur egun eskola arautuagoa dago, adin/ mailaren arabera banatzen dira taldeak, matrikula ordaintzen dute ikasleek, material eta baliabide berriak erabiltzen dira: internet, arbela digitala...

Zenbat jende mugitzen du bertso eskolak Bortzirietan?

Gaur egun zazpi talde elkartzen dira borts herrietan: Beran helduak eta Labiaga ikastolakoa; Etxalar eta Igantzin haurren taldeak badira eta Lesakan, helduena, gaztetxoena eta haurrena. 50 ikasle inguru denetara. Horretaz gain Lesakan, helduen talde bat euren kabuz elkartzen da.

LEHEN PLAZA

«Nafarroako hainbat txapeldun atera dira Bortzirietako bertso eskolatik, hori horrela da. Dena den bertsolari bat txapeldun ateratzen denean, meritu handiena berea da. Bertso eskolak baliabideak eskaintzen ahal ditu baina lan gehien norberak egin behar du. Egañari entzun nion behin eta ados nago: bertso eskola lehen plaza da, etxean landutakoa erakusteko lehen plaza».

Baina bertso eskola ez da bakarrik bertsolariak sortzeko ikastokia edo elkargunea...

Bertsolariak ez ezik, bertsozaleak, gai-emaileak, epaileak... denetik ateratzen da bertso eskolatik. Bertsolariak kanta ahal izateko mugimendua handi bat behar du inguruan eta era berean bertsotarako gaitasun berezirik ez duenak ere bere tokia topa dezake bertsolaritzaren inguruan. Helburua transmisioa da, hurrengo belaunaldiei bertsolaritza transmititzea. Bertsolaritza modu dinamikoan bizi-tzen badugu, dinamika horrek erakarriko ditu bertsozaleak gure ingurura eta bertsolaritza bi-

zirik mantentzeko behar diren eragile guztiak izanen ditugu gurekin.

Zertan aldatu da bertsolaritzaren egoera duela 25 urtetik honat?

Duela 25 urte biziraupena bera zalantzan zegoen. 90. hamarkadan goraldi bat bizitu zuen eta orain Bertsozale Elkarteen eta hainbat bertsozaleren lanari esker osasuntsu eta egonkor dagoela erran daiteke. Gainera, egun, gehiago hausnartzen da egiten dugunaz, nolako bertso-kerak, estereotipoak, gaiak, gaien trataera...

Eta etorkizuna nola ikusten duzue?

Bertsozale, Udalen eta Mankomunitateen laguntzari esker bizirauten du Bertsozale elkartearen egitasmoak, baina behar bezala lan egiteko Gobernuaren laguntza behar genuke. Urteroko kezka nagusia zorra nola ordainduko dugun izan ordez, bertsolaritzaren proiektua nola bideratu izan behar luke eta gaur egun kezka ekonomikoa da nagusi urtero.

Eskola emateaz gain, zein ekitaldi antolatzen ditu Bortzirietako Bertso Eskolak?

Bertso otordua, taldeko lehiaketa, bertso antzerkia, kurtso bukaera-ko besta, zaharretxeko saioa, herriarteko desfioak... aunitz dira urtean zehar bertso eskolak antolatzen dituen saioak.

GIZARTEA → ENTZUMEN URRITASUNAZ SOLASEAN

«Bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzei balioa ematen lagundu dit»

Idoiaren alaba gorra da eta inplantearen bitartez entzuten ikasten ari da

Hainbat proba egin dizkiote eta azken emaitzen arabera Idoiaren alaba gorra jaio zen. 13 hilabeterekin inplanteari jarri zioten eta familiaren eguneroko erronka da entzumena garatzeko joatea.

G. ALTxu

Otoemisia izena du haurreijaiotakoan egiten zaien entzumen azterketak. Idoiaren alabak ez zuen proba pasa eta hasieran zerbait entzuteko gai zen edo ez ez zekiten arren, azkeneko emaitzetan jakin dute guztiz gorra jaio zela.

13 hilabete zituela operatu eta inplanteari jarri zioten. Inplanteari jarri zioten, ordea, ez du automatikoki entzuteko aukera ematen. 15 hilabete zituenean entzuten hasi zen eta orduantxe ekin zioten gurasoek inplanteari bitartez entzuten erakusteari.

Entzumenaren arretan sekulako lana egin dute eta oharikabea pasatzen diren soinu asko antzemateko gai dela kontatu digu Idoia amak. Arreta hori lortzeak lan handia suposatu diela ere aipatu digu. Esaterako, Madrilen egindako lehen kontsulta ekarri du gogora: «egun hartatik aurrera etxera tinbrea jo eta gero sartuko ginela esan ziguten bertan, hau da, jada ezin genituela giltzak erabili. Hartara, gure alabak tinbrearen hotsa entzundakoan ulertuko zuen etxera norbait zetorrela». Egune-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Entzumena lantzen dute hilabeteen behin Madrilen eta egunero etxean.

rokotasunean izugarizko lana egiten dute, baina tarteka deskantsuak ere hartzen dituzte. Uda hau, adibidez, oso lasai pasa dutela dio Idoiak, «momentu bakoitzean zer egiten genuen kontatu diot, baina oso era lasaiean, entzumena bazarrik erabili dugu, estrategia gehiagorik gabe».

4 urteko alaba inguruan bat gehiago da eta ingurua ere erabat moldatu da dituen beharretara. Irakasleek adibidez, FM ekipoa erabiltzen dute ikasgelan, irakaslearen ahotsa argiago eta zuzenago entzun dezan. Ekipo honek mikrofono bat du, irakasleak bertatik hitz egiten du eta ahotsa zuzenean inplantee-

KONTZPTUAK ARGITUZ

«Gor-mutua entzume-na eta ahotsa ez duen pertsona da. Gorra, ordea, entzumena izan ez arren, ahotsa duena da eta gaur egun inplanteeekin gure seme alabek ahots ederrak dauzkate»

tara iristen da. Honi esker, «haurren bat negarrez ari bada edo ikasgelan zalaparta handia baldin badago, gure alaba ez da hain erraz despistatzen». Gainera, ikastetxeko langileek Madrileko terapeutarekin harreman zuzena dute eta honela «guztiok no-

rabide berdinean aurrera egiten dugu». Idoiak zorte handia izan dutela azpimarratu izan du, «inguruan tokatu zaizkigun profesionalekin ezin naiz kexatu».

Bada oraindik gor-mutua eta gorra kontzeptuak desberdintzen ez dituen. «Gor-mutua entzumena eta ahotsa ez duen pertsona da. Gorra, ordea, entzumena izan ez arren, ahotsa duena da eta gaur egun inplanteeekin gure seme alabek ahots ederrak dauzkate». Terapia jarraitzeaz gain, Bortzirietako Guztio Guraso taldeko kidea da, «bertan gure seme alaben behar bereziengatik borrokatzen dugu elkarlanean».

Idoiaren alabari «bertze edozein haurri bezala hitz egin behar zaio, entzuten duelako. Ez azkarregi, ez polikiegi. Ezta altuegi edo fuertee-gi ere». Soinu handiko inguruetan, «arreta berezia izan behar da, ulertu duen edo ez jakiteko. Askotan ez da ezertaz jabetzen, ez delako soinu guzti horren gainean ahotsak desberdintzeko gai. Zarata zalapartatsu horrek nekatu egiten du askotan».

Bizitzan horrelako egoerek, benetan garrantzitsuak diren gauzei balioa ematen laguntzen dutela dio, «batzuetan txorakeriek kezkatzen gaituzte eta alabak hantak lurrean jarri dizkit».

AHOZKO ETA ENTZUTEZKO TERAPIA (AET)

Idoia ALTUNA ERRANDONEA |

«Metodo guztiak errespetagarriak dira, bakoitzak bere bidea aukeratu behar du»

Inplantea jarritakoan, zein errehabilitazio mota daude?

Hainbat aukera daude; zeinuen hizkuntza, terapia bimodala (keinuak ahotsarekin), ezpainen irakurketa edo guk aukeratutako Ahozko eta Entzutezko Terapia (AET). Guztiak errespetagarriak dira eta familia bakoitzak aukeratu behar du bere bidea, profesionalen laguntzarekin.

Zergatik aukeratu duzue AET terapia?

Gure alabak inplanteekin entzun egiten du eta guk bere entzumena lantzeko apustua egin dugu, informazioa burmuinera entzumenaren bidez iritsi dadin. Pertsona gorrek ikusmen gaitasun handia dute. Bizitzako lehenengo urtean, eta inplantea jarri ezean ondorengo urteetan ere bai, kanpoaldearekin izaten duten harremana ikusmenaren bidez bakarrik gauzatzen da. Entzutea gehiago kostatzen zaie, ahalegin handiagoa egin behar dutelako.

Nola lantzen duzue entzumena?

Entzumenaren bidez ulermenerako estrategiak lantzen ditugu. Familia terapia da, etxean lantzeko helburuak ematen dizkigute. Gurasoei hitz egiten erakusten zaigu, jolasten, gure haurren ulermen eta adierazpenak estimulatzeko etxean errutinak egiten.

Madrilera joaten zarete hilabeteen behin...

Madriren saio presentziala egiten dugu. Terapeutak saioaren hasieran zer egin behar dugun erraten digu; nire senarrak edo nik ariketa egiten dugu eta bertzeak gaztelarrera itzultzen dio terapeutari. Gehienetan ipuin batekin hasten gara eta berak gure ahotsaren tonuan, azkartasunean, isiluneetan, alabarengan eragiten ditugun emozioetan,... jartzen du arreta. Ondoren, aste oso-rako jarraibideak ematen dizkigu, gaizki egindakoa aipatu eta zuzendu egiten digu. Saio bakoitza amaitutakoan, saioaren laburpen bat bidali behar izaten diogu, ongi ulertu dugun ikus dezan.

Eta Skypeko saioak astero egiten dituzue...

Saioaren aurreko egunean, saioan landu beharrekoa bidaltzen digu e-mail bidez. Saioaren lehenengo zatian zerbait zuzendu behar bada bakarrik eteten gaitu. Bestela, errutina nola egiten dugun (afaria prestatu, adibidez) edo nola jolasten dugun begiratzen du. Saioa amaitutakoan, ariketak komentatzen ditugu eta jarraibide berriak ematen dizkigu.

Oraingoz ez duzue zeinu hizkuntzaren aldeko apustua egin. Zergatik?

Oraingoz ez, baina etorkizunean zeinu hizkuntza erakustea pentsatua daukagu, geroz eta komunikazio erreminta gehiago izatea beretzat hobea izanen delako. Baina entzumenaren bidez hizkuntza bereganatua duenean.

LAGUNTZA EKONOMIKORIK EZ

«Alabak 18 hilabete dituenetik, hilabetero Madrilera joaten gara terapia egitera. Hilabeteroko bidaiak eta terapiarekin jarraitzeak diru asko kostatzen zaigu eta nahiz eta eskakizuna egin dugun, horrelako terapientzat ez dago laguntza gehigarririk».



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Oharkabean pasatzen diren soinu asko antzemateko gai da.

Euskara eta gaztelera ikasteko aukera ematen al du AETk?

Hasieratik argi genuen alabari euskaraz hitz egingo geniola, gure ama hizkuntzan. Terapeuta Naira Delgado Márquez da, Espainiako Aurea zentroko zuzendaria eta ez daki euskaraz, baina familia terapia denez, berak estrategiak eman eta guk gure alabarekin euskaraz lan egiten dugu. Terapeutak familia lagundu egiten du, baina lanketa etxean egin behar da. Horren adibide garbia da gure kasua. Alabak euskara eta gaztelera ikastea gustatuko litzaiguke eta terapia honek dio, bi hizkuntzak %33an erabiltzen badira, biak ikas daitezkeela.

Gurasoek zeregin handia duzue terapia honetan. Zein da zehazki zuen papera?

Zeregin handiena gurea da. AETk familiengan sinisten du eta boterea beraiei ematen die. Egunerokotasunean entzumen arazok dituen gure alabarekin komunikatzen erakusten digu. Ernai mantentzen gaituzte, egiteko asko dauzkagunaren sententzioarekin eta ez digute erlaxatzen uzten. Ez dago presente ez gauden saiorik. Ez gara terapiako partaide pasiboak, aktiboak baizik.

ZEINU HIZKUNTZAREN ALFABETOA



**Nire txanda**

Jon ABRIL

Lorez lore

Ilusioa eta poza sortu digu 'Loreak' filma Oscarretara bidean ikusteak. Joan den urtean Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean estreinatu zenetik –euskarazko lehenbiziko filma sail horretan–, arrakasta, sari eta lorerik ez zaio falta izan Jon Garaño eta Joxe Mari Goenagaren lanari. 50.000 ikusle lortu ditu filmak zinema-aretoetan ('Aupa Etxebeste'ren 72.000etatik edo 'Lasa eta Zabala'ren 70.000etatik urrun). Eraitza ikusgarria, nolanahi ere, euskaraz sortutako lan batentzat.

Izan ere, zero batzuk gutiago izan ohi dituzte euskarazko sormen lan ia denek. Apenas saltzen da libururik edo diskorik gurean; euskarazko antzerki-aretoetara nekez hurbiltzen da jendea, eta euskara markak ez du saltzen. Lagun dezala 'Loreak' fenomenoak euskarazko produkzioa ezagutzera ematen. Euskara egun bakarreko lore baino, lorez lore ibiltzeko bizi-izatea baitu erronka.

«Izan ere, zero batzuk gutiago izan ohi dituzte euskarazko sormen lan ia denek»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Gure galaktikoak

Ez dira gantzontziloak edo koloniak iragarritzat aberastuko; ez dute ahoa gordez ondokarekin ahapeka solastuko; ezta bihotza irudikatuz telebista kamerari gola eskainiko... baina urteak joan eta etorri, koxkor biltzen, Sarako Kontrabandisten lasterketan, ingude altxatzen, Lizuniagako igoean... nonahi ibilikio dira lehian, sasoiak ez baita milioiekin neurtzen. Zorionak Maika eta Fernando!

Nabarmentzekoak

**Dolores LAZKANO**
Artzainen Egunean omendua

2010ean hil zen emakumea omendu zuten Beran, Artzain Amerikanoen Egunean. Gaztelun sortu arren, Beran ezkondu zen eta bertako artzain taldea elkartu eta gidatu zuen.

**Joseba LARRALDE**
Berako korrikalaria

Sasoiko dago Mantalekoa. Uharte Arakil-Berain Kilometro Bertikalean Nafarroako txapeldun izan ondok, Olatzagutia-Urba eta Etxarriko mendi lasterketak irabazi ditu.

**Maika ARIZTEGI**
Koxkor biltzen txapeldun

Iturendarrak hamalau garren aldiz irabazi du Euskal Herriko Koxkor biltze txapelketa. Igan-tzin jokaturako finalean, gizonezkoetan Fernando Etxegarai txapeldun izan zen 9. aldiz.

Atzera begira → 2005-X-06 / TTPI-TTAPA 407 zk.



Urdazubiko Ugarana Emakume Elkarteko Silvia Olaizolarekin

Duela hamar urte Landa Eremuko Emakumeen zortzigarren topaketa egin zuten Urdazubian. Ospakizuna antolatu zuen Ugarana Emakume Elkarteko Silvia Olaizolak aipatu zigunez, «emakumeok ahantziak gaude eta gure mundu hori garatu nahi dugu». 2000. urteko martxoan sortu zen Ugarana elkarte eta geroztik ikastaroak, solasaldiak eta bertze hainbat ekitaldi antolatu zituzten urtero. «Duela gutti arte josten erakusten zen eta aurren brikolaje ikastaroa egin dugu, bonbilla bat aldatu behar denean, adibidez, beti gizonen ondok ez ibiltzeko» aipatu zigun Olaizolak.



Argitaratzailea Ttapi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.eus**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemakaleak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Zeinena da lurra?

Pello APEZETXEA

Jendearen bizilekuz aldatzea da gaur egungo gertaera nabarmenetako bat, lurralde batek bertzera joatea. Eta ez gogo onez, hain zuzen, gehienetan, beharturik baizik. Goseak, gerrak, eskasiak bulkaturik, oraingo egoera txarretik ustezko hobe batera.

Gauza berezia ikusten dugu, ordea, jende mugitze horretan. Estatu deitzen ditugunetako agintariek, oztopo-oztopoaren gainean multzatzen dute “bereak” omen diren lurraldeetan “kanpotarrik” sar ez dadin. Nahiz eta goseak edo gerrak bulkatuak ibili. Tristeak dira itsasoak eta hainbat lurraldek egunero eskaintzen dituzten ikuskizunak, ur gainean itotako gorpuak, edo estatu mugetako alanbreak gainditu ezinean. Eta inork ez ditu hiltzailetzat salatzen haur, emakume eta adineko hildako horiei bidea debekatzen dietenak. Zibilizatu eta kristau omen direnek, ez dute ezinean dabiltzan hildako senideen garrasirik entzuten.

Europarrek bizileku duten lurra erabat eurena dela diote, eurena bakarrik. Baina, zer eta, pobrea go diren lurretan ere eskubideak badi-tuztela uste dute. Diruz eta armaz haie-tako aunitz ondasu-nez baliatzen dira, petrolio, mineral eta oinarriko janariak eskuratuz. Planetako lur guztiaren erabateko jabeak bailiran. Eta planeta honen jabe bakarrik ez, ilargiaren eta bertze planetenak ere bai. Eta nork eman die ustezko jabetasun hori? Indarrez eskuratu duten aberastasunak. Horrek sorrarazten dizkie beharrezko diren tresna teknologikoak. Teknologia baita, gaur egun, nagusitasunaren iturria. “Oihaneko” deitutako legeak zuzendutako nagusitasuna, noski. Zein den lege hori? Animalien artekoa, indarraren legea, indartsuarena, handiarena. Ez da, ordea, adimena eta sentimendua jendearen berezitasuna, hain zuzen ere animalien-gandik bereizten duena, eta ez indar fisikoa? Jende izaera animalien milaka urtetako bilakaeratik gertatu omen da, burmuinaren handitzetik batez ere. Dena den, gaurko egoera ikusita, batzuetan pentsatzeko bide ere ematen du, jende izaera hori ez ote den ahultzen eta tikitzen ari.

«Europarrek bizileku
duten lurra erabat
eurena dela diote,
eurena bakarrik.
Baina, zer eta,
pobrea go diren
lurretan ere
eskubideak
badi-tuztela uste dute.
Diru eta armaz
haie-tako aunitz
ondasunez baliatzen
dira, petrolio, mineral
eta oinarriko janariak
eskuratuz».

Oinarrizkotik has gaitzen

Mikel RODRIGUEZ LANDA


Katalunia independentziarako bidea egiten ari dela eta, iduri du antsietateak jota dagoela euskal herritar aunitz, ikusten dutelako hemen ez dela irekitzen Kataluniaren antzeko bidea urratzeko zirrikituren bat. Horregatik, ikusi dugu EH Bilduk eta independentista den jende aunitzek Kataluniaren antzeko prozesu bat hasteko beharra aldarrikatzen dutela, eta, horretarako, gehienbat EAJri zirika egiten saiatzen ari dira, ea eskuin abertzalea bere kontraerranetan harrapatu eta Katalunian CDC bezala mugituko ote den. Baina Euskal Herrian alderdiren bat badago kontraerranetan eroso mugitzen dena, hori EAJ da. Independentismoak hobe luke alternatiba zehatz bat gorpuzten saiatu, EAJ noiz mugituko den esperoan egon baino. Eta hobe luke, halaber, gauzak garbi erraten hasi. Adibidez: Katalunian bezalako prozesu bat nahi dugu, ongi. Baina zeinek nahi dugu? Zeintzuk hasiko dugu? Zein gara gu? Ez ditugu gauzak argi erraten. Bi estatutan banatuta gaude; Ipar Euskal Herriak ez du existentzia ofizialik, eta Hego Euskal Herria bi administrazioetan banatuta dago. Bertzei erronkak botatzerakoan, inork erraten al du garbi panorama horrekin nola hasi nahi duen Kataluniaren antzeko prozesu bat? Katalunian bezalako prozesu bat hasteko, objektiboki gurean Euskal Autonomia Erkidegoak ditu Kataluniaren antzeko baldintza politikoak. Ba al dago gurean bakarrik mendealdeko hiru probintziekin prozesu bat has-tea aldarrikatzen duen independentismoa? Hala bada, garbi erran beharra dago. Baina hori ez bada bidea, independentziaren aitzinetik lurraldetasuna eraiki behar dela sinesten bada, independentismoak oinarrizko elementuak ere ber-riz pentsatu behar ditu. Gaur egun, ez du Euskal Herri osoan koherentea den diskurtso bat; eta, gainera, ez du, gauza-rik sinpleenetatik hasita: izena eta bandera. Nola izena du gu-re herriak? Euskadi? Euskal Herria? Iparralden frantsesez *Pays Basque* da, baina Hegoalden, gaztelaniaz ari garenean nola deitzen diogu? *País Vasco*? Zenbat probintziari? *Euskal Herria* deituko diogu, i-an tildea duela, eta horrela solastuko diogu audientzia guziari, Euskal Herriko edozein lurraldetan? Nafarroa Garai osoan, adibidez? Ikurrinarekin nahikoa dugu independizatu nahi dugun nazioan herritar denengana edo-non ailegatzeko? Agian gauza horiek ez dira inportanteak, baina gurean jada proiektuen edukiak debatitzen hasi aitzinetik sortzen dute gatazka. Katalunian bezalako prozesu bat hasi herri badugu, ezin gara hasi etxea teititutik eraikitzen. Kontsultetan pentsatzen hasi aitzinetik, independentismoak bere imaginarioa berriz formulatu beharra du, eta orain arte dogma izan diren elementu aunitz berrikusi. Saiatu beharra du Tuteran, Maulen, Karrantzan, Laudion eta Zumaian kohe-renteia izanen den diskurtso bat eraikitzen, sinbologiatik eta terminologiatik hasita. Orain urrezko aukera bat sortu da, Nafarroa Garaian muturreko espainolismoak erakunde inpor-tanteenak galdu dituelako, eta Iparralden abertzaletasunak inoizko emaitza onenak izan dituelako. Badago giro apropos bat independentismoak bere prozesu eratzailea hasteko, her-riz herri eta eskualdez eskualde, beheitik goiti. Eta birformu-lazio horretan, abertzaletasunaren periferia izan diren eremu-ek, hau da, Iparralde, Nafarroa Garaiak eta Arabak, inoiz ez bezalako aukera dute protagonismoa hartzeko.

Prentsatik bildutakoak

«Niretzako zerbait berezia da. Ttiki-ttikitatik bizi dut [abel-zaintza]. Zoragarria da neguan ardiak umatzen ari direnean edo bildotsak esnea edaten ari direnean, edo behiekin ibiltzea. Hori sentitzen duzun zerbait da. Bertze batzuei futbola edo kirola gustatzen zaien bezala, niri aziendak gustatzen zaizkit. Eta ferietara joaten naizenean, aunitz gozatzen dut ardiak, behiak edo zaldiak ikusiz».

Alvaro GARDE

Arraiozko abeltzaina
D. NOTICIAS • 2015.09.27



«Naturan ikusten dudaren eta koarduan isladatu nahi dudaren arteko oreka bilatzen dut. Ez da kopia zehatza izaten. Natura isladatzen saiatzen naiz, eta natura traizionatu gabe, ukitu pertsonala eta arbitrarioa ematen diot».

«Zuhaitzak aunitz gustatzen zaizkit, eta nire koadroetan dantzan ari diren zuhaitzak bezala margoitzen ditut, mugimendua irudikatzeko».

Juan Carlos OLAETXEA

Berako margolaria
D. NAVARRA 2015.09.29

11 galdera labur**Goizuetan jaio eta Arantzan bizi. Xapoa beti xapo?**

Bai goizuetarra naiz ni, baina 46 urte daramazkit hemen bizitzen eta ez zait iruditzen hemengoa ez naizenik ere. Tarte horretan nabil.

Erretiroa hartuta, lehen baino denbora libre gutxiago omen duzu...

Denbora, dena probesten dut. Lehenbiziko andreak ematen dizkidan lanak egin eta gero eskulanean aritzen naiz.

Noiztik datorkizu afizioa?

Haurrak nintzelarik orduak egoten ginen kotxeei begira eta gero gureak egiten genituen.

Garajeak museo itxura gehiago omen du...

Instanteko neronek hasi beharko dut kanpoan lanean.

Zenbat eskulan dituzu...

Sekulako pila, 200 baino gehiago bai. Motoak, kotxeak, adornoak, errota bat...

Zer material erabiltzen duzu?

Burnia, egurra... denetarik erabili eta pieza desberdinak egiten saiatu izan naiz.

Zenbat orduz aritzen zara eskulanean?

Goizeko 6etan jeiki eta isil isilik aritzen naiz inoiz ernatu gabe. Udazken eta neguan aritzen naiz gehien, eguraldi txarra delarik.

Arantzako baserritarren**egunean postua jarriko duzu aurreten ere?**

Bai urtero arteratzen ditut gauza berriak, duela 16 urte inguru hasi nintzen.

Zer jarriko duzu ikusgai?

Gauza berriak eta garai batekoak ere bai. Batzuk garai bateko piezak ikusi nahi izaten dituzte eta besteek berriak.

Nondik hartzen dituzu ideiak?

Zuzenean ikustea gustatzen zait, detaile gehiago hartzen ditudalako. Gero aldizkariari begira egoten naiz.

Zein da Arantzako baserritar egunaren berezitasuna?

Bertako produktu pila ateratzen da plazara eta herritarrek egiten dugun lana ikusgai jarritzen da. Gonbidatuta zaudete denok. Azaroaren 1ean etorri Arantzara!



Felix APEZETXEA → Arantzan bizi den artista goizuetarra

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jose Luis & Coro
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**
Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Irakurleak mintzo

Ernadi gazte!

Beñat ETXEKOLONEA
(Malerrekako Gazte
Asanbladaren izenean)

Malerrekako gazte-riaren errealitatea aztertzen hasita, alternatibaren beharra eta herri desberdinetako gazte-en arteko harreman faltatzen sumatu genuen. Horregatik, bi urtez geldirik egon ondotik, Malerrekako Gazte Asanblada martxan jartzea erabaki genuen, aipatutako arazoei buruz hausnartu eta haiei aurre egiteko. Horretan ari gara eta hilabete honetan zita garrantzitsua daukagu. Urriaren 24an hirugarren Ernadi Rock antolatu dugu Donezteben, egun osoko egitarauari gaupasa eder batekin bukaera emanez. Egun honen helburua, jendeari eta batez ere gazteei egungo errealitatea kritikoki ikustera bultzatu eta horren aurrean, alternatiba eraiki daitekeela ikustaraztea da. Beste Malerreka baten eraikuntzan denak garenez beharrezko, urriaren 24an ez gelditu etxean, bertan ikusiko gara. ERNADI GAZTE!

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.net

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



Bota bertsoa

Julen ZELAIETA IRIARTE • Doinua: Habanera

Baztan-Bidasoaldeko XXVIII. Bertsopaper lehiaketan 1. saria

Hogeita bortz udazken

1 Laurogeita hamarreen, efemerideak ketan: Kuwait-en gerra piztu zen; urduri Ameriketean, Thatcher-en dimisioa, herriaren mesedetan, Simpsondarrak estreineko telebistako katetan, Retegi berriz txapeldun (hau, nola ez, .. Anoetan), Egunkaria-ren lehen aleak prentsa-dendetan, Irunen Negu Gorriak... ta udazken hartan bertan, Azaroan, Bertsoskola sortu zen Bortzirietan.

2 Manolo ta Bittor dira sortzaile, buru ta aita Gazteak bertsolaritzan treba zitezela nahi ta, hartu Lesakan Estitxu, Erkizia, Makuko, Gaizka... ta kotxean Arantza! ilusioari jarraika. 20 bat lagun Ekaitzan, itxaropenak... hamaika! lau oin emanda bertsotan (bukaeraren bat baita); lau oinena, logikoa! hala egin zuten... nahita: bide luze bat "oinekin" egiten hasi behar baita.

3 Tartean baziren hainbat bertso-za(ha)r, bertsopapera, haietatik ikasteko ere badenez aukera. Lontxoren materialari zuku ederra atera, ta aunitz pasatu ziren idatzitik bapatera. bospasei ausartu arren jendaurrean egitera, taldea murriztuz joan zen (hori zergatik ote da?). Arantzan, bertso-sukarra jeistearekin batera, Bertsoskola Lesakara jaitsi zen urtebetera.

4 Ekaitza utzi genuen, nahiz bazen nahiko toki han. Arantza betikotua gelditu zen argazkian. Babes hartuz gure ikur bihurtu den hegaztian, Arranon sentitu ginen gure gustoko tokian. Bertso doinuak goian ta, musikarenak azpian. Bi taldetan bereziak, adinaren aitzakian. Hura banatu zen modu justu eta egokian: tikiak gela handian eta haundiak ttikian.

5 Hamarkada hasieran, urteak pasatu a(ha)la, aunitz, animatzen ziren; izena eman ta.. hala! egun bat aski ez eta: ortzegun ta ortzirala; nolako overbooking-a! irakaslentzat mortala! Bertsolaritzak orduan zuen oihartzun zabala: Saioak frontoi beteetan, Belodromoan finala,... Denek bertsolari izan nahi zutela ta... normala! gure gelak bete ziren jaialdi haiek bezala.

6 Bi maixu haundiek zenbat, gogo, pazientzi ta fede! meritu ederra zuten biek ere, alafede! Gaztetxo pila ilaran, "zerbait botatzee" xede. Idatziz, nahiz bapatean, bakoitza ahal bezain trebe. Han denak berdina ginen; ez erregin, ez errege. Manolok besotik heldu ta bertan, bere titere, le(h)nbiziko ikasgaia nork ez zuen egin bere? harro kantatu behar dela bertso txarra izanda ere.

7 Laurogeita hamabia, oroimenean jasoa. Le(h)nl perlak oholtzaratzea ez zen izan eroso. Estitxu eta Silveira gazteengan jarriz soa, oraindik "haurrak" zirela aunitzentzat arazoa. Hasi zen txapelketa ta emaitza kuriosoak! Biak ere finalean! Ze oroitzapen gozoa! Gaiarrekoa izan zen, ta horra egi osoa, gurean, bertsolaritza gaztetzeko lehen pausoa.

8 Geroztik, izen berrien zerrenda luze bat bada; jubilatutuztenak Jaso eta Madariaga. Oharkabea bete zen le(h)nbiziko hamarkada. Bertsoskolak inguruan bazuen izen bat jada. Eskaria haunditu zen; ezetz erratea, traba. Beraz, bertsolaritzaren enbajadore gisara, heldu ginen, lgantzira Etxalarrera, Berara,... bertsolaritza zabaldut, ia herri guztietara.

9 Jende pila bat pasa da, belaunaldiz belaunaldi. aunitzek jaso adina eman dio bertsolari. Batzuk, hor dabilzan arren herririk herri kantari, bertsolari izatea ez zen guztien gurari. Bertsolaritzak berekin badiu adar ugari. batzuk gai-egile dira edo saioen gidari, bertzeak puntuak jarriz, bertsoak epaitzen, adi... ta batenbat ere bada elkarteko lehendakari.

10 Auniztan egin izan dut, begira zeru urdina, Bertsoskola hitz guttitan azaltzeko a(ha)legina; izan ziteken, "bertsotan egiteko eraikina", edo "txapelketarako entrenatzeko egina".... Nahiz eta denek ez dugun hautatu bide berdina, talde giroak denengan izan baitu eragina, pasa direnei galdetu, ta ziur nago, jakina, gehienentzat izan dela; "lagun arte atsegina".

11 Ekintzek eman digute bizirauteko arnasa. Batzutan elkarlanean ta bertzetan geure kasa; Sanferminak, ta Feriak izen haundiko bi plaza, Za(ha)r-etxeko bixitetan kantua eta solasa, taldekako lehiaketak, lagun arteko jolasa. hitzaldiak, GR-ak, Bandarekin "Bertso-jazza",... kontatzen hasi ezkeror, ez da kopuru eskasa! hogeitabortz urte hauek ez dira alferrik pasa.

12 Zorionak Bertsoskola! urte berezia aurtan. (norbera zoriontzea ez da ohikoa izaten). Mende laurden bat pasa da, nahiz ta ez duen ematen. Zaila da neurrian sartzen horrenbertze oroitzapen! Segi dezagun bizitza doinuaz ta errimaz janzen, hitzekin jolas eginez, gozatu ta goza-arazten, gure egunerokoan orri berriak idazten,... sasoiko bete ditzagun bertze hogeitabortz udazken.

ELIZONDOFERIAK

Juan Kruz IRIARTE | Baztango udaleko Ingurugiro, nekazaritza eta mendi gaietako zinegotzia

«Sektoreari bulkada bat eman eta harremanak sendotzeko garrantzitsua da urriko feria»

Mendizaina ogibidez, Baztango Udaleko Ingurugiro, nekazaritza eta mendi zinegotzi kargua hartu zuen uztailan eta uda bukatu orduko, Elizondon garrantzitsuak diren bi hitzordu heldu dira: Irail hondarrean egin zen Piriniotar behi arrazako enkante-lehiaketa eta Urriko feria. Biak «**lehenengo sektoreari bulkada bat emateko aukera egokia dira**» erran digu Juan Kruzek.

Enkante-lehiaketaren kasuan «**bertako arraza baten alde egin den lana erakutsi eta mantentzeko modua**» dela uste du «**laguntza bat da eta egiten duten lanarekin segi dezaten animoa ere bai**».

Urriko ferietan ere, «**nekazariei garrantzia ematen zaie, azienda munduari lotua dagoen jendea plazara ateratzeko modua baita, jendaurrera ateratzekoa. Elkar ikusteko eguna ere bada. Iparraldetik jende aunitz izaten da eta elkarren arteko harremanak sendotzeko garrantzia handia du**». Ezinbertzekoa iruditzen zaio «**harremana ona eta zaulia izatea. Kontuan hartu behar-reko eredia dira. Aitzinetuagoak daude adibidez, bertako kontsumoa bultzatzen**». Aukera hori baliatuta, bateko eta berteko adituak eta arituak biltzeko ahalegina egin beharko litzatekeela uste du «**aunitz dugu bertzeengandik ikasteko**». Aurten adibidez, Hazitik Hozie taldeak antolatutako mahai-ingurua «**hagitz interesgarria izan zen**».



«**Bertako eta inguruko nekazari eta abeltzainak gonbidatu eta mahainguruak antolatu beharko lirateke ferietan. Feria eguna ispilu ona baita elkarri begiratzeko**»

Allianz

Maite Petrarena

Aseguru agentzia - Agencia de seguros

Ongi pasa feriak!

Albaitaritza

www.albaitaritza.com **Materiala**
Tlfno.: 948 580 980 **Botika**
Hazia

Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

Albaitack

www.albaitack.com
Tlfno.: 948 506 169

ALBAIKIDE

Tfnoa.: 902 169 169 www.albaikide.com
Albaitari zerbitzua

Husqvarna

ONGI PASA FERIAK

T. 948 580 898
M 697 10 50 89
Santiago 85
31700 ELIZONDO
NAFARROA

www.biokbat.com

236 4,7Kg 38,2cc
eskaintza **199€**
Lehen: 249€ Aurreztu 50€

135 4,4Kg 40,9cc
eskaintza **259€**
Lehen: 299€ Aurreztu 40€

135eTB 4,8Kg 40,9cc
eskaintza **299€**
Lehen: 349€ Aurreztu 50€

Erabilerrazena **Moldagarriena** **Seguruena**

Eskaintza baliagarria 2016/01/31

SOBRINO
ostatua

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak

FERIETAN
ortziral eta
larunbatean bazkariak

ONGI PASA FERIAK!!

Santiago - ELIZONDO
948580823

Euskal xerriaz, piriniotar behiaz eta pottokaz aritu ziren eta espezie horietako bakoitzaren egoera desberdina izanik, garapen ekonomikorako aukera desberdinak ere azaldu zituzten». Uste dut feria hauek mahaingurua egiteko abiapuntu izan beharko luketela. Edozein gairi buruz. Denendako da garrantzitsua.

«Baztangoa erostean, etiketan argi geratuko da zer ari zaren erosten. Garrantzia du horrek; aldika izaten dutelako kolore bat eta gero begiratzen duzu gibealeko aldean eta bertze kolore bat dute»

egunean ezin zara gauza bakarrera mugatu. Eta aldaketa hori emateko, pausoak nola eman pentsatzeko, beharrezkoa da laguntza. Batean galtzen badira, beste aldetik irabaziak izateko modua bilatu behar da, zerbaitean egoera txarrera badoa, mantentzeko modua izateko».

Herritarren kezketaz galdetuta, mendiko bazkalekuen mantenuaz galdezka gerturaten omen da gehiengoa «Erdiz, Belate eta Lizartzuko bazkalekuak eta mendiko infrastruktura mantentzeko babes eskatzen dute». Nekazariei bultzada emateko proiektuak burutan dituztela ere aipatu du »gauzak transformatzeko lantegi bat martxan jartzea ari gara pentsatzen; jendea hasmenta emateko horretan, hasteko oinarri bat izan dezaten. Genetikoki lantzeko sagarren banku bat ere bai... baina zehaztu gabe daude oraindik».

Baztango, bertakoa indartzeko

Bertakoa produktuei indarra emateko, Baztango marka bultzatu da berriki «hasmenta eman dugu eta ea nola betetzen den. Inguruko ekoizleak momentuz gustura daude eta ea Baztangoa aitzinerat ateratzen den». Baztango izendapenaren baitan, bertan ekoizten diren produktuak sartuko dira «arlo desberdinak batzea da asmoa: ekologikoa, tradizionala...». Marka bultzatu eta erosleek zer erosten duten jakitea da helburua, kontsumitzaileak bertako produktuari garrantzia ematea, «Baztangoa erostean, etiketan argi geratuko da zer ari zaren erosten. Garrantzia du horrek. Aldika izaten dutelako kolore bat eta gero begiratzen duzu gibealeko aldean eta dute bertze kolore bat».

Feriak erakusleio ona dira Juan Kruzen ustez «bakoitzak bere azientak erakutsi eta saltzeko probesten du, baita trukeak egiteko ere. Horregatik, abelburu bikainak ikusteko aukera izaten da Merkatuko plazara erostera edota ikusmiran bazoaz».

Lehenbiziko sektorearen premiez galdetuta, «laguntza ekonomikoa beharrezkoa» dela dio eta «administratibotik laguntza eta aholkularitza premiazkoak» gaineratzen du. Esplotazioak dibertsifikatzea garrantzitsua dela iruditzen zaio, «gaur

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak. Autoa, etxebizitza, istripu eta bititza aseguruak
- Lan aholkularitza. Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala. Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria. Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



LABORRA ARKITEKTOAK
-Gabriel & Ines-

Etxebizitzak - Berrikuntzak - Hirigintza
Ziurtagiri energetikoak



Santiago, 54-1° Elizondo T. 948 580 122

www.laborra.com

Kris
leopaindegia

ONGI PASA FERIAKI

Giltzaundi, 14 • ELIZONDO
948 580 025

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK

SARRAILAGINTZA
ZERBITZU BERRIA



Santiago 31 • ELIZONDO • Tel. 94 580 234 • Faxe: 948 581 210



Txokolatea urrekin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta aitortpenak
- BEZ aitortpenak
- Sozietate zergak
- Zure negozioaren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatean aholkularitza
- Enpresen erekitzea
- Kontabilitatearen eramatea
- Administrazio zerbitzuak
- Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena

ZERGALAN 
aholkularitza
www.zergalan.es
info@zergalan.es

Ongi, pasa
feriak!

BERTZE ZERBITZUAK

- Jubilazioen eramatea
- Ezgaitasunen eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru - laguntzak
- Negozioen bideragarritasunen eramatea

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Zentru berria
k/ santiago 58, Elizondo



Homeopatia

Juan Martín Ballesterro 633767609

Kiromasaje/Oin reflexologia/ Reiki / Hirutasun esentzia

Neus Bernabeu 690843948

Polaritatea

Manuel Serrano 639 252 516

Biomagnetismoa / Medikuntza txinatarra / Dietak

Itxaso Mendizabal 667308826



arteka 20th
arkitektura eta zerbitzuak

www.artekabaztan.com

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610



GASOLIOA ETXERA

baztanoil 
T. 948 452 309 | M. 677 310 009 | www.baztanoil.com



ELIZONDOKO FERIAK

Urriko azken egunek feria giroa dakarte

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, ate joka ditugu feriak. Elizondoko Herriak antolatuta, urriaren 30 eta 31n, izanen da hitzordu garrantzitsua, beti bezala, ortziral eta larunbatez. Aziendak ikusi eta traturen bat egin nahian doazenek, posturik postu pagotxen bila dabiltzanak, bestarako gogoz daudenak... denek eginen dute bat udazkeneko lehenengo ferietan.

Azienda hoberenen plaza

Kalitate eta itxura bikaineko ahari, behor, behien... erakustoki bihurtuko da urriaren 30ean Elizondoko Merkatu Plaza goizeko 10etatik eguerdira bitarte. Makineria erakusketa ere eguerdira arte egonen da ikusgai.



Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketaren finala

Herri-kirolak maite dituztenek ere izanen dute non gozatua, eguerdiko 12etan jokatu baita Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketaren finala Elizondoko Iriarte Pilotalekuan, (Euria eginez gero Baztan pilotalekuan izanen da). Finala ikusteko 10 euroko sarrera ordaindu beharko da. Sei aizkolari lehian, Ruben Saralegi leitzarra da eskualdeko ordezkari bakarra. Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko enbor moztu beharko ditu. Lehen bi sailkatuak mailaz igo eta datorren urtean lehen mailan aritzeko aukera izanen lukete.

Eguna bukatzeko, 17:30ean pilota partiduak antolatu dituzte frontoian. Lau terdiko txapelketako ligaxkako azken partidua eta binakako bertze bat jokatu dira.

Begirada zorrotza postuz postuko ibilbidean

Postuak izaten dira Elizondoko ferietako bertze osagai garrantzitsua. Elizondoko karriketan barna 200 inguru jarri izan dituzte aitzineko urteetan. Aurten ere, nekazaritzako lehengaiak, tresnak, jakiak, arropak... jarriko dituzte salgai, ortziral eta larunbatean egun osoz.

**ESKISAROI
JATETXEA**
ongi pasa feriak!
T. 948 580 013
Jaime Urrutia • ELIZONDO

hirup *... betikoa baina ezberdina*
Baztan Berri 7 B | ELIZONDO
T 948 581 219
Ongi pasa feriak!
Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hanburgesak, ensaladak, fritoak... Etorri eta dastatu gure berezitasunak!
BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuen, Solagüen ardo beltz ondua eta Solagüen txuria
Infusioak zapore guztietakoak
Eskoziar eta Irlandar kafeak

GOIZALDE *ostatua*
MENUAK • KAXULAK • BOKATAK • PINTXOAK
948 581 334 | Jaime Urrutia, 8 | ELIZONDO
ONGI PASA FERIAK!!!
TXOKOTO
MENUAK • KAXULAK • BOKATAK • PINTXOAK
948 580 349 | Braulio Iriarte 25 | ELIZONDO

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

ETXEBIZITZA BIKAINAK

Baztanberri Plaza, 2 - behea ELIZONDO
T. 948 580 304 | info@jbiturria.com
www.jbiturria.com



ALMACO BAZTAN GRUP GAITIA

www.almacobaztan.com



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

EGUR-PROZESADOREA ORAIN HAUNDIAGOA ETA AZKARRAGOA



TAJFUN

www.tajfun.com



NUEVO

RCA 480 JOY
RCA 480 JOY PLUS

BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIETAN!!!



AROZ-BERRI, S.A.

Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Fax 948 452 103
irurita@arozberri.com - Ctra. NA-8307, km 0'8 - 31730 IRURITA (Navarra)

www.arozberri.com

NAFARROA OINEZEN BAITAN

Oinez basoa osatzeko erronka aitzinerat doa

Urriaren 31ra arte babes litezke zuhaitzak

Oinez Basoa auzolanean egindako proiektua da, ehunka lagunen ekarpenei esker osatzen ari dena. Ez da ohiko basoa, euskarak eta naturak bat eginen baitute bertan, ingurugiroa, euskara eta Nafarroa Oinez besta bultzatuz.

Hain zuzen, Nafarroa Oinez bestak uzten duen aztarna ekologikoa gutxitzeko asmoz 2008an abiatu zen ekimena. Tokian tokiko naturgune bat birsortzeko helburua duena. Baztanen, Gainekola inguruko herri-lurrak baliatu eta xarma eta lorua landatuta baso berria sortzeko bidean dira. Apiril hondarrean aurkeztu zuten proiektua jendaurrean eta geroztik, www.oinezbasoa.eus web gunearen bidez zuhaitzak babesteko aukera dago. Dagoeneko 560 zuhaitz baino gehiago babestu dira eta azken hilabeteen kopuruak goiti egitea nahiko lukete antolatzaileek, baztandar bakoitzeko zuhaitz bat landatzeko aukera egon dadin.

Espezie bereziak eta mindeitze

Ia galzorian dauden bi landare espezie aukeratu dituzte Oinez Basoan landatzeko: xarma edo pago lizarra eta erramu portugaldarra edo lorua. Gure ingurunean nahiko kopuru txikian dauden landareak izanik, beraien garrantzia areagotzen da. Oinez Basoaren bertze ekarpen berezia, ia atzendua dagoen mindeitze ohitura ezagutzera ematea izan da. Baztanen eta inguruko herrietan garai batean sustraitua zegoen ohitura zen eta lekukotzak, argazkiak... bilduaz, baso berria sortzeko iraganeko jakituria izan dute oinarri.



Urriaren 31ra arte, nola lagundu Oinez Basoa osatzen?

Zuhaitz bakoitzeko 10 euroko ekarpena eginda, basoaren sorreran lagundu liteke. Zuhaitzez zuhaitz, babestutako zuhaitz bakoitzarekin, osatuko baita Oinez basoa. Gainera, laguntzaile izateko aukera ere badago. Hala, 100 zuhaitz baino gehiago babesten dituztenak, proiektuaren laguntzaile bihurtuko dira, ekarpena maila pertsonalean edota enpresa edo talde baten izenean eginez. Urriaren 31ra arteko epea egonen da ekarpenak egiteko.

Landaketa urte hasieran

Babestutako zuhaitz horiek, 2016ko urtaril-otsail aldean landatuko dituzte. Auzolanean sortutakoa, auzolanean landatuz, denona izanen den basoa osatuko dute.

KortariXar
Elizondo • T. 948 58 18 20
www.kortariXar.es

FERIETAKO MENUA

GARBANTZUAK AZAREKIN
TXIPIROIAK SALTAN
BILDOTXA TXILINDRONEAN
EUSKAL PASTELA IZOZKIAREKIN
KAFAA

25€

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz

ONGI PASA FERIAK!!

Santiago, 26 • ELIZONDO • T. 948 581 507

GOÑI

harategia

ongi pasa feriak!

Mendinueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

Ongi pasa feriak!!

Autxitxia

Gasnategia

- ▶ Bertan egindako ardi gasna
- ▶ Gaztanbera eta zenderena enkarguz
- ▶ Behi eta ahuntz gasnak
- ▶ Dastapenak eta bisitak

Ramón Agirre Altzelai
Jaime Urrutia, 32 • 31700 Elizondo
657 576 142

ELBETeko POSADA

ONGI PASA FERIAK!

6 logela bainugelarekin eta egongela bat

- Eguneko menua
- Karta
- Enpresa otorduak
- Afaltzeko plater bereziak prezio berezian
- Bataioak ...

Karrikaundi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com



Web: www.mainoneaagentzia.com

KONTABLE, ZERGA, LAN eta JURDIKO AHOLKULARITZA

Email: asesoria@mainoneaagentzia.com



GENERALI
Aseguruak

MAÑONEA AGENTZIA - ELIZONDO - BAZTAN - NAFARROA

Telefonoak: 948 58 11 32 - 606 89 68 43 / Email: seguros@mainoneaagentzia.com



ARKUPE
Gozotegia · Txokolategia

Txokolatea, urrarekin egina,
almendrazkoa,
beltza eta xuria.
Tabletak, bonboiak, trufak,
Txokolate konfitatua.

Tartak, etxeko izozkiak, pastelak
pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Iruñea - Tel. 948 452 021 · 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

onegin Herbodietetika
Ekodenda

ONGI PASA FERIAK!

Dietista nutrizionista

Naturista-homeopata

Opariak

Elikadura ekologikoa

Salmenta granelean

Kolesterol dietak,
diabetes dietak, etab.

Giharraren neurketa, grasaren
neurketa, uraren erretentzioa...

Jaime Urrutia, 26 Behea
31700 ELIZONDO
948 581 932 oneginelizondo@gmail.com

ELIZONDOKO 28.LEHIAKETA-ENKANTEA

Pirinioetako arrazaren alde egindako apustuaren emaitza

34 abeltzainek, erdiak nafarrak, 280 buru aurkeztu zituzten Elizondoko Merkatu Plazan egin zen lehiaketa-enkantera. Nafarroa eta Bizkaiko aziendak izan ziren sari gehienak eskuratu zituztenak eta 'Bibi' zenaren omenezko saria, Irurritako Teodora Mitxelena lortu zuen, bere ustategiaren kalitateagatik.

Aurten 28. edizioa bete du Piriniar arrazako behien estatu mailako lehiaketa-enkan-teak. Gehienbat Euskal Herrian hazten diren aziendak izan ziren ikusgai eta aurtengoan ere aurkeztutako abelburuen kalitatea azpimarratu zuen epaimahaiak. Hamabi kate-goriatan banatuta, baserritar bakoitzak kategoria bakoitzera bi buru aurkez zitzaizkeen. Sari bereziak ere baziren eta hala, denera, 76 sari banatu ziren. Atal bakoitzeko irabaz-leak joarea eta 90 euro jaso zituen saritzat, 70 euro bigarrenak eta 50 euro hiruga-rrenak. Sari banaketan izan zen Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernu Landa Gara-pen, Toki Administrazio, Ingurumen eta Lurralde Antolaketarako kontseilaria.



SARIDUNAK

URRUXAK

8-12 hilabete:

1. Carlos eta Laura Oroz (Artze)
2. Isabel Laumaga (Arraioz)
3. Gregorio Iraola (Arraitz-Orkin)
4. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
5. Isabel Ibarrola (Arotz)

12-18 hilabete

1. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
2. Isabel Ibarrola (Azotz)
3. Angel Mitxelena (Iruñea)
4. M. Carmen Abendibar (Iurreta)
5. J. Antonio Ustarroz (Senosiain)

18-24 hilabete:

1. J. Antonio Sorbet (Burutain)
2. Gregorio Iraola (Arraitz-Orkin)
3. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
4. J. Antonio Ustarroz (Senosiain)
5. Maria Nela Vittorini (Zenotz)

2-3 urte:

1. Isabel Ibarrola (Azotz)
2. Angel Mitxelena (Iruñea)
3. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
4. Maria Nela Vittorini (Zenotz)
5. Aitor Arana (Arrasate)

3-4 urtekoak umatuak:

1. Gregorio Iraola (Arraitz-Orkin)
2. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)
3. M. Carmen Abendibar (Iurreta)

4. Isabel Laumaga (Arraioz)

5. Juan Jose Urteaga (Zestoa)

Ugalketarako:

Jesus Ostiz (Olague)

4-6 urtekoak umatuak:

1. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
2. Gregorio Iraola (Arraitz-Orkin)
3. Isabel Laumaga (Arraioz)
4. Maria Nela Vittorini (Zenotz)
5. M. Carmen Abendibar (Iurreta)

Ugalketarako:

Ion Peio Frantziskonea (Luzaide)

6-8 urtekoak umatuak:

1. Joseba Rekalde (Zeanuri)
2. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
3. Teodora Mitxelena (Iruñea)
4. M. Carmen Abendibar (Iurreta)
5. Gregorio Iraola (Arraitz-Orkin)

Ugalketarako:

Joseba Rekalde (Zeanuri)

8-12 urtekoak umatuak:

1. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)
2. Isabel Laumaga (Arraioz)
3. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)
4. Prudencio Urkia (Idiazabal)
5. M. Carmen Abendibar (Iurreta)

Ugalketarako:

Ricardo Palacios (Lakuntza)

12 urtetik goitiko umatuak:

1. M. Carmen Abendibar (Iurreta)
2. Isabel Laumaga (Arraioz)
3. Maria Nela Vittorini (Zenotz)
4. Carlos eta Laura Oroz (Artze)
5. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)

Ugalketarako:

Carlos eta Laura Oroz (Artze)

ZEZENKOAK

24 hilabete artekoak:

1. Maria Nela Vittorini (Zenotz)
2. Asier Bilbao (Durango)
3. Carlos Oroz eta Laura (Artze)
4. Juan Jose Urteaga (Zestoa)
5. Jon Koldo Bikandi (Iurreta)

2 eta 4 urte artekoak:

1. Teodora Mitxelena (Iruñea)
2. M. Carmen Abendibar (Iurreta)
3. Isabel Laumaga (Arraioz)
4. Juan Jose Iñarrea (Erratzu)
5. Joseba Rekalde (Zeanuri)

4 urtetik goitikoak:

1. M. Carmen Abendibar (Iurreta)
2. Ion Peio Frantziskonea (Luzaide)
3. Gregorio Iraola (Arraitz-Orkin)
4. Jesus Ostiz (Olague)
5. Isabel Amondarain (Azotz)

KULTURA → IRAILAREN 20AN

76.000 bisitari izan zituen iaz Bertizko Parkeak

Isabel Elizalde kontseilaria natur parkearen patronatuaren bileraren buru izan da

TTIPI-TTAPA

75.875 pertsonak bisitatu zuten 2014an Bertizko Parke Naturala, parkeko patronatuko ur-

teroko bileran jakin denez. Patronatu horren buru Nafarroako Gobernu Landa Garapene-ko, Toki Administrazio-ko eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizalde izan da.

Bertizko bisitarien jatorriari dagokionez, %35 Nafarroakoak ziren. Gainerako autonomia erkidegoen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko bisitariak nabarmendu behar dira



UTZITAKO ARGAZKIA

Isabel Elizalde kontseilaria izan zen Bertizko Natur Parkeko patronatuaren bileran.

(%19). Atzerritarrei dagokionez, gehienak Frantziatik etorri ziren.

Bertzeak bertze, bileran, azpiegitura, erabilera publiko eta kontserbazioan 2014an egindako jarduerak eta ekintzen berri jakin da, eta 2016rako aurreikusitakoak eztabaidatu. Haien artean, parkeko

produktuen linea baten garapena nabarmendu behar da, bai eta erabilera publikorako Añeriko lorategia akituko dela ere.

Bertizko Parke Naturalak kalitatezko Q marka du. 2014an egindako auditoriak 9,7 puntu eman zizkion (10 puntu eman zitezkeen ge-

hienez). Gainera, gogorra ekarri behar da, berriki Tripadvisor-en Bilkaintasun Ziurtagiria lortu duela. Turismoa eta bidaiaak sustatzeko arloan, mundu-mailako webgune garrantzitsutzat jotzen da hau.

2015eko lehen hiruhilekoan, 33.000 bisitari jaso ditu parkeak.

GIZARTEA → EHIZARI BURUZKOAK 23. ALDIZ

Zortzi jatetxeak parte hartuko dute Jardunaldi Gastronomikoetan

Urriaren 31tik azaroaren 29ra izanen dira eta aurten lehen aldiz, argazki lehiaketa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak antolatzen dituen ehiza jardunaldi gastronomikoak urriaren 31tik azaroaren 29ra egingen dituzte. Zortzi jatetxek hartuko dute par-

te: **Bortzirietan**, Arantzako Aterpe eta Iganztziko La Villa; **Malerrekan**, Donamariako Benta; **Baztanen**, Arizkungo Ordoki, Elbeteko Posada, Irurritako Olari eta Oronoz-Mugairiko Argain eta **Urdazubín** Montxo jatetxea.

Baztan-Bidasoa Turismoak kartel bat eta jatetxe guztiak biltzen dituen eskuorri bat argitaratu ditu. Eskuorri hauek, jatetxeetan eta informazio turistiko puntuetan eskuragarri egon diren baita www.baztan-bidasoa.com



UTZITAKO ARGAZKIA

Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpenean, Ruben Garate (Irurritako Olari jatetxea), Carlos Lezeaga (Pirineos Exdim enpresakoa), Iciar Mikelperizena (margolaria), Mari Joxe Iparragirre (Baztan-Bidasoa Turismoa elkargoaren ordezkaria), jBelen Urrutia (Elbeteko Posada) eta Lorea Luzuriaga (Donamariako Benta) izan ziren Urdazubiko Montxon.

[baztan-bidasoa.com](http://www.baztan-bidasoa.com) web orrian eta sare sozialetan. Urriaren erdialdera menu guztiak biltzen dituen eskuorri argitaratuko du elkargoak. Material grafiko honetarako urtero bezala, eskualdeko margolari baten margolana agertzen da. Oraingoan, Iciar Mikelperizenaren *La*

angustia del faisán koadroa agertzen da.

ARGAZKI LEHIAKETA LEHEN ALDIZ

Aurten Ehiza Jardunaldiko argazki lehiaketa antolatu da lehen aldiz. Parte hartu nahi duenak, jatetxe hauek baten batera hurbildu, menua eskatu eta

dastatuko duen plateri argazkiak atera eta info@baztan-bidasoa.com helbidera bidali beharko ditu. Irabazleak Baztan-Bidasoako jatetxeren batean 2 pertsonentzako bazkaria dastatzeko aukera izanen du. Lehiaketaren oinarriak jatetxeetan eskuragarri izanen dira.

BERA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 3AN

Dolores Lazkano omendu dute Ameriketako Artzain Egunean

500 lagun bildu
ziren frontoiko
bazkarian

TTIPI-TTAPA

Atzo, gaure eta beti lelopean, Ameriketako ibiliko euskal artzainei gorazarre egiteko eguna antolatu zuen Euskal Artzainak Ameriketako elkartek urriaren 3an Beran eta 500 bat lagun bildu zituzten

Eztegara pilotalekuan egindako bazkarian. Kultur-transimisoan emakumearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute.

Berako Musika eskolakoekin kalejiran joan ziren artzainak San Esteban elizara, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizalde eta be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Artzainak, antolatzaileak eta Nafarroako Gobernuko kontseilaria, eliz atarian.

re kabinete-buru den Izaskun Abril beratarra lagun zituztela.

Bankako Menditarak taldeak eta Berako Abesbatzak kantatu zuten meza. Bankakoek Ameriketara joandako emakumeei kanta bat eskaini zieten.

DOLORES LAZKANORI OMENALDIA

Hain zuzen, meza bu-

kaeran Dolores Lazkano Ustariz zenari omenaldi tiki bat egin zioten. Sortzez Gazteluko Komizko Bordakoa, Parisen neskato aritu zen 1963tik 1968ra. Garai beretsuan Kaliforniako Stanford-en artzain ibiliko Donamariko Martindeneko Agustin Leonis Babazerekin ezkondu zen Beran 1968an. Beran hiru seme-alaba

izan dituzte, Maitetxu, Juan Antonio eta Xatur.

Xorroxin Irratian Euskal Artzainak Ameriketako elkartearen deialdia adituta, Dolores Lazkano bera izan zen Berako artzain taldea biltzeaz arduratu zena. 2006an egin zuen lehen harreman hura eta 2010eko ekainaren 30ean hil zen arte, taldearen ardura eraman zuen.

PUNTIXAS

24 H

REPSOL

KULTURA → URRIAREN 25EAN

Sagardo eta Gazta lehiaketak hartuko ditu Lurraren Egunak

Bezperan Lizuniagako Igoeraren 35. edizioa eta 9. barazki opil lehiaketa egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, urriko laugarren igandean ospatuko da Lurraren Eguna Beran. 29. edizioa beteko du Gure Txokoak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatutako ekitaldiak eta hilaren 25ean egingen da.

Bezperako egitaraua ere urtetik urtera osatuagoa izaten da. 15:30ean ttikien lasterketak egingen dira eta 17:00etan Lizuniagako Igoeraren 35. edizioa. Aurten, bederatzigarren edizioa beteko duen barazki opil lehiaketa 18:30ean egingen da Altzateko frontoian eta trikitilariak ere lagunduko dute animazioa jartzen. Rosa Errandonearen argazki erakusketa ere irekiko dute larunbat arratsaldetik Ikastolako aretoan.

IGANDEA IZANEN DA EGUN HANDIA

Igandea izanen da egun nagusia. 09:00etarako lehiaketarako barazkiak, gaztak eta sagardo botilak eraman beharko dira Ricardo Baroja eskolara. 10:00etatik aitzinera eskulangile eta elikadura azoka eta barazki erakusketa egingen dira Altzaten. 10:30ean txistulariak, zeltiar musika eta Irats trikitilariak izanen dira Altzateko plazan. 11:00etan hasiko da Bortzirietako 29. Gasna lehiaketa eta Musika Eskolako trikitilariak kalejiran abiatuko dira. Eguerdian, 18. Sagardo Lehiaketa egingen da Karnaxenean eta kalejiran aterako dira Musika Eskolako eta bandako musikariak. Bi lehiaketetan parte hartzeko Bortzirietako ekoizlea izan behar da. Gazta lehiaketa irabazten duenak 300 euroko saria eta oroigarri bat eramanen ditu eta bigarrenak 100 euroko saria. Sagardo lehiaketako irabazleak, berriz, 200 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 75 euro.

Arratsaldean ere se-



UTZITAKO ARGAZKIA

170 gaztetxo bildu ditu XXI. Dantzari Ttiki Egunak

Gure Txokoa elkarteak antolatutako XXI. Dantzari Ttiki Eguna ospatu zuten irailaren 26an. Herriko dantzariekin batera, Ibarrako Alurr eta Zaldibiako Iztueta taldeko dantzariak aritu ziren karrikaz karrika dantzan, eguraldi bikaina lagun. Hamabi urtez beheitiko 170 bat dantzari bildu ziren Altzateko plazako jaialdian eta arratsaldean musika izan zuten Endara Dee Jays-ekin.

gituko du bestak. 16:00etan hasita Altzateko Plazan herri kirolak izanen dira. Sari banaketa egingen da bertso-

riekin eta horrekin batera enkantea, txaranga eta dantzaldia. Egunguztian musika, taloak, eta jaki eta edariak das-

tatzeko aukera izanen da. Euria egiten badu ekitaldiak Altzateko frontoian eta kiroldegian egingen dira.

URRIAREN 30 ETA 31N ETA AZAROAREN 1EAN

Kotto Alzuguren heriotzaren 10. urtemuga gogoratzeko zenbait ekitaldi antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Jose Angel Alzuguren Kotto zenaren heriotzaren 10. urteurrena bete behar dela eta, herritar talde batek ekimen desberdinak prestatu ditu, 'Egiaren bidean, askatasuna amets. Kotto gogoan' goiburupean. Irailean Saratik abiatu eta Bortzirietako zeharkatu zituen dispertsioaren kontrako eskualdeko mendi martxa burutu zen. Hala ere, urteurrenaren inguruko ekimen nagusiak urriko azken asteburuan egingen dira.

Urriaren 30ean, ortziralean 20:30ean 'Espetxealdiko esperien-

tziak' mahai-ingurua egingen dute Beralandetan, preso-ohien eskutik. Urriaren 31n, larunbatean 12:00etan ekitaldia egingen dute Kultur Etxean eta 14:30ean bazkaria Zubiondon. Bazkarirako txartelak Errekalde, Katak eta Botxon, Lesakako Arranon, Sarako Herriko Etxeko edantegian eta Arantzako Pablo-enean izanen dira (helduentzako 20 eurotan eta haurrentzat 10 eurotan).

Azaroaren 1ean, igande goizeko 10:30ean Altzateko plazatik abiatu eta mendi irteera egingen da Otsandara.


BILLEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA


TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatzako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satellite bidezko internet


Zalain · BERA · 948 630 052

LESAKA

KULTURA → URRIAREN 24AN

25. urteurrena ospatuko du Bortzirietako Bertso Eskolak

Bezperan solasaldia eskainiko du Unai Iturriagak

Aitor AROTZENA

Duela 25 urte, 1990ko urrian sortu zen Bortzirietako bertso eskola. Urtemugaren aitzaki horrekin hainbat ekitaldi antolatu dituzte urriaren 24an, *Jada mende laurden... kantari bizitzeaz erden!* izenburupean. Harriondoa Kultur Etxean, ikasle eta ikasle ohien argazkia aterako dute 11:30ean eta ondotik hamaiketa-

koa eta ekitaldia egingen dute, dantza, musika, bertsoak eta bertze uztartuz. 14:30ean bazkaria izanen dute Linddurrenborda sagardotegian. Helduen menua 20 euro gostako da eta haurrena 10 euro. Txartelak okindegian, Berako Errekalden eta Arantzako Pabloenean jarriko dituzte salgai. Bazkariaren ondotik, dantzaldia izanen da Beñat Mitxelenarekin.

Bezperan, urriaren 23an, ortziral arratsaldeko 7etan *Umorea txapelketan* hitzaldia eskainiko du Unai Iturriagak Harriondoa.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 23AN

San Fermin elkarteak bere Eguna ospatuko du

Aitor AROTZENA

San Fermin jubilatutako Elkartearen Eguna urriaren 23an ospatuko dute. Aurten ere, diamantezko eta urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei eta 85 urte betetzen dituzten bazkideei omenaldia eskainiko zaie. Zehazki, **Diamantezko Ezteiak** Pedro Larralde eta Maria Jesus Zubietak ospatzen dituzte; **Urrezko**

Ezteiak Jose Francisco Ubirak eta Josefa Anduezak, eta Santiago Igoa eta Maria Jesus Aiestaranek; eta **85 urte** Jose Agirretxe Ezama, Maria Luisa Telletxea Viñas, Consuelo Aldaraborda Iparragirre eta Teresa Larralde Gaztelumendik. Gehiago ere izan daitezke.

Eguneko egitarauan ez da aldaketa handirik izanen. 12:30ean Meza



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Olaizola Nafarroako txapeldun 22 urtez beheiti

Jon Olaizola herriko pilotariak irabazi du Nafarroako buruz buruko esku pilota txapelketa, 22 urtez beheitiko kategorian. Urriaren 3an jokatu zen finala Iruñeko Labrit pilotalekuan eta Olaizolak 18-3 irabazi zion Errekako Medinari.



ARGAZKIA: XAGU

Nafarroako Mendi Taldeen Eguna ospatu dute

Nafarroako Mendi Taldeen Egunaren 13. edizioa ospatu dute urriaren 4an herrian. Beti Gazte eta Oberena elkarteek antolatu dute elkarlanean, biak ere 75. urteurrenako ospakizunetan baitabilta. Kiroldegitik abiatuta mendi ateraldia egin zuten mendizaleek, bi ibilbiderekin. Denak Frain kaxkora joan ziren eta Piedadetik barna, Unanuko magala, Sastrin eta Gaztegin barna egin zuten itzulila. Eguerdian Elutxa txaranga ibili zen karrikaz karrika. Frontoian bazkaria egin zuten. Bazkalondoa, Modesto akordeolariarekin dantza egiteko aukera ere izan zuten mendizaleek.

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erregetia · Asador

Biurraña, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera · Nafarroa
t. 948 631 106 · 948 630 967
w. www.zalain.info e. sainz.amaia@gmail.com

GIZARTEA → HAMAHIRUGARREN URTEZ

Usategietako sasoi berrian bisita gidatuak ere martxan

Ordubete ingurukoak, ikus-entzuneko batekin eta behatokira sartzeko aukerarekin

Irune ELIZAGOIEN

Urriaren 1ean hasi zen Usategietako sare bidezko uso harrapake-ta sasoi. Bertan, 600 urte baino gehiago dituen sareko uso harrapaketa tradizioa bizirik ikusteko aukera dago. Urtero bezala, urriaren 1a eta azaroaren 20a bitarteko larunbat, igande eta besta egunetan burutuko dira bisitak, irteera goizeko 11:00etan izanen delarik. Bisitaren iraupena, ordubete ingurukoa da eta prezioa, 4 euro pertsonako; 10 pertsona baino gehiagoko taldeentzat eta haurrentzat (6-12 urte), 3 euro pertsonako. Bisitaz gain, ikus-entzunezko bat ikusteko eta sareetako behatokira sartzeko aukera dago, bertatik, usoa datorrenean, sareetan nola sartzen den ikusteko. Joan den igandean egin zen Usategietako besta izan zuten aunitzek bisita hori egiteko aukera ederra. Informazio gehiago www.etxalar.org orrian aurkitu daiteke.

Margotze tailerra

Gazteek antolatuta, Itziar Mendikoa eta Maitearen eskutik margotze tailerra izanen da haurrei zuzendua. Azarotik aitzinera hasiko da tailerra, Iharrian, astearte arratsaldetan. Tarte margotze teknikak erakusteko tailerra ere izanen da gazte eta helduei zuzendua. Ez da aitzinetik izena eman beharrik, azaroaren 3an agertzearekin nahikoa da.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Urriaren sartzearekin batera eskolaz kanpoko jarduerak ere martxan dira. Trikitixa (Itsaso), kenpo (Modesto), ingelesa (Roger), pandereeta (Alaitz), perkusioa (Irune), multideportea, katekesia (Pello eta katekistak), pilota (Altxata) eta euskal dantzak (Altxata) dira aurtengo ikasturterako eskaintzen direnak.

Usategietako tradizioaren besta

Irailaren 27an ospatu zen Usategietako tradizioaren besta. Egural-



ARGAZKIA: ETB

Herritarrek Euskal Telebistako 'Zuek hor' saioan

Irailaren 29an 17 herritar joan ziren ETB1eko *Zuek Hor!* programara publiko bezala. Aurtengo denboraldia Ibon Gaztañazpi eta Marta Elvira kazetariak aurkeztu dute eta bertan zeuden Anjel Alkain, Aitziber Garmendia eta Ana Elordi aktore ezagunak ere. Programa arratsaldean grabatu eta gauean eman zuten.




ARGAZKIAK: ARANTXA ZUBIETA ETA REBEKA ARANZADI

Giro bikaina izan zen Usategietako tradizioaren bestan.

dia lagun, jende aunitz hurbildu zen eta ekitaldi guztiak arrakastatsuek izan ziren. Sara eta Etxalarko hainbat usazale paletak egiten ari ziren goizean eta ondotik paleta tiratze txapelketan parte hartu zu-

ten. Bi herrien arteko hitzarmena sinatzera-koan, Etxalarko eta Sarako alkateek gain, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Toki Administrazio, Ingurumen eta Lurralde Antolaketarako kontseilaria

den Isabel Elizalde hurbildu zen. Usazaleek aunitz eskertu zuten bere bisita. Bazkarian 330 pertsona inguru elkartu ziren eta giro ederrean eta kantuz lagunduta pasa zuten arratsaldea bertaratutakoek.



F. LANCHAS

Akuxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzalea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI

abokatua
abokatua

© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → SAN MIGEL BIKAINAK

Giro bikaina izan da aurten ere bestetan

Goitibeherek eta herri kirol saio ikusgarriak jendetza bildu zuten

TTIPI-TTAPA

San Migel egun handia hondar egunerako utzita ere, giro paregabea izan da aurten San Migel bestetan. Txupri-

nazoa, euskaltegia euskara ikasten ari direnek bota zuten. Bezperan, dantzariak saio dotorea eskaini zuten. Berrikuntza nagusietako bat Piedadetik beheiti egin zen goitibehera erakustaldia izan zen eta jende aunitz erakarri zuten. Igandeko herri kirol saioak bezalaxe. Txapelketa ofizialak jokatu ziren, baina herriko gazteek egiten duten la-

na ere azpimarratzekoa da. Elutxa txarangak girotu zituen karrikak besta guztietan, baita astelehen eguerdiko betizuak ere. Istipuren bat izan zen, baina orokorrean ederki pasatu zuten plazara atera ziren gazteek eta kanpotik begira zeuden ikusleek. San Migel eguneko karrika buelta, meza eta dantzekin bukatu ziren bestak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irizarritarren bilkura Irizarriko jauregian

Irailaren 26an egin zen Irizarri familiaren lehen topaketa, Irizarri Landen. Lehen edo bigarren abizentzat Irizarri, Irizarri, Hirisarri edo Yrisarri duten 70 bat lagun bildu ziren, Euskal Herri osotik ez ezik, Zaragoza edo Alicantetik ere etorriak. Bazkalondan, Yrisarri Sendia Elkartea ere aurkeztu zuten, hain zuzen Irizarritarren ondare historiko-kulturala ikertu, berreskuratu eta promozionatzeko helburuarekin sortua. Gaur egun 26 lagunek osatzen dute elkartea eta edozein Irizarritarrek har dezake parte, Joxe Elgorriaga gerenteak aipatu zuenez.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Giro paregabea izan da aurten ere San Migel bestetan.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 472

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

“TELLETXEA”
Lorazaintza
- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -
John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESACA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

GIZARTEA → URRIAREN 16AN

Zuhaitzak ezagutzeko aukera herri inguruan

Joan den larunbatean haurrekin ibilaldia egin zuten angulerutik San Juan Xarrera

Nerea ALTZURI

“Arbolak izautuz” irakurri dugu ekimena iragartzeko kartelean eta bi hitzordu: joan den urriaren 10ean izan zen lehenbizikoa eta angulerutik San Juan Xarrera joan ziren. Zuhaitzak ezagutzeko hainbat ekintza egin zituzten eta ortziral honetan, herri inguruan ibiliko dira. Parke azpiko eta herri inguruko zuhaitzak ikusi, argazkiak atera, izenak ikasi, hostoak bildu eta afitxa batzuk beteiko dituzte. Gure haurrei, tiki-tikitatik natura zaintzeko eta maita-

tzeko urratsak erakutsi behar zaizkie. Ateraldi hauetan, gure arnasa diren arbolen garrantzia eta hauek ezagutu eta bereizteko azalpenak ematen dira eta berriki sortu den euskararen aldeko taldeak antolatu ditu. Beraz, ortziral honetan hitzordua arratsaldeko 4:30ean paratu dute parkean. Denak animatzeko deia egin dute.

Su egurra

Urtero bezala, su egurra eskatzeko deialdia egin du udalak. Lotebakoitzak 30 euro baliotu eta etxe bakoitzak bakarra eskadezake. Eskatera, herriko etxean egin behar da urriaren 30a bitarte.

Telefonoen gida

2009an egin zen herriko telefono gida. Bertan, etxeen izenak, helbideak eta telefono fin-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baserritarren Eguna ate joka dugu

Udazkenarekin batera, kultur ekitaldien baitan, baserritarren eguna ate joka dugu. Aurten hogeigarren aldia izanen da... bada zerbait!! Ekaitza elkarteak pres-taketa lanean ari da eta beti bezala, herritarrei parte hartzeko deia egin die. Bertako produktu, azienda eta eskulanak erakusten dira eta era guzietako produktuak izaten dira. Elikagaietan: barazkiak, gozokiak, zerriak, esnekiak, taloak... Etxeko aziendak ere izaten dira eta eskulanetan, bitxiak, kuadroak... Gasna lehiaketa ere egingen da bertze urte batez. Postua jarri nahi duenak, Isabel Danboriena edo Gabi Goiari erran behar dio; aziendak ekarri nahi dituenak Iker Iguzkiagirri; eta gazta lehiaketan parte hartu nahi dutenek, Mirari Maiz edo Gurutze Pikabearengana jo behar dute. Izen emateko urriaren 25a arteko epea dago. Baserritarren Eguneko eta egun horren inguruan antolatzen diren ekimenen berri xehetasun gehiagorekin hurrengo alean emanen dizuegu.

ko edota mugikorren zenbakiak agertzen dira.

Gida hau berritzeko intentzioa du udalak. Gida jende aitzinean egonen da herriko etxean hilabete akabaila bitarte. Horrela, datuak begiratzeko, aldatzeko, zuzentzeko eta berritzeko aukera izanen du herritarrek. Etxe izenen ingu-

ruko zalantzak ere argitzeko modua izanen da.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Euskaltegiak i-kasturtea abiatu da. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, euskara ikasi nahi duten ikasle, langabetu, pen-

tsiodun eta baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak diruz lagunduko ditu. Matrikula gastuen %80 arteko dirulaguntzak eskura ditzakete ikasleek. Eskerak urriaren 31 baino lehen egin beharko dira.

Informazio gehiago nahi duenak, www.bortziririak.eus edota 948 634 125ean.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

A

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

GIZARTEA

LEHIAKETA → URRIAREN 7AN ZALAIN JATETXEAN

Udako I. Argazki lehiaketako sariak banatu dituzte

Pello San Millanek jaso du epaimahairen saria eta Matixa Mitxelenak publikoarena

TTIPI-TTAPA

Ttipi-Ttapa aldizkariak eta Xorroxin Irratiak elkarlanean antolatute aurreko lehen aldiz udako argazki lehiaketa eta ERRAN.EUS atariaren bidez gauzatu da. Bertara igo dituzte le-

hiakideek udan ateratako argazkiak.

93 argazkiren artean Pello San Millanen *Mediterraneo urdiñe* argazkia izan da epaimahairen saria lortu duena. Isabako Txapatera apartamentuan 6 lagunendako 2 gaueko egonaldia eskuratu du.

ERRAN.EUS webguneko erabiltzaileei ere hitza eman nahi izan zaie, publikoaren saria aukeratzuz. Matixa Mitxelenaren *Hiru Errege-en Mailatik* argazkiak jaso du boto gehien eta berak irabazi du Berako Zalain jatetxean 4 lagunendako otordua.



ARGAZKIAK. TTIPI-TTAPA

Goitiko argazkian, saridun eta sari emaile guztiak ageri dira. Behegian, ezkerrean, epaimahairen saria jaso zuen Pello San Millanek eta publikoarena Izaro Mitxelenak.

SARI BANAKETA

Urriaren 7an banatu ziren sariak Berako Zalain jatetxean. Pello San Millanek berak jaso zuen sari nagusia, Txapaterako Elsa Tapia eta Fermin Maritorenaren eskutik. Publikoaren sa-

ria, berriz, Izaro Mitxelenak, Matixaren ahizpak jaso zuen, Zalain jatetxeko Amaia Sainz eta Jose Gabriel Pikabearen eskutik. Ttipi-Ttapa Fundazioko Joxema Irigoien ere sari-banaketan ekitaldian izan zen.

Horretaz gain, parte-hartzaileen artean, Irri-sarri Landera sartzeko 4 sarrera bikoitz berezi ere zozketatu dira. Hauetako irabazleak: Rosa Errandonea, Maider Petrirena, Maite Altzuguren eta Maria Plaza.

NAFARROAKO GOBERNUAREN TXOSTENA

Almandozko tunelak tunel seguru baten arriskua bikoizten du eta Belatekoak hirukoiztu

TTIPI-TTAPA

Tunelen arriskua neurtuta, horietako batzuetan berehalako neurriak hartu behar dira Nafarroako aurreko gobernuak eskatutako ikerketen emaitzen arabera.

Arrisku handiko tuneltzat hartu dituzte Almandozko eta Belateko tunelak. Euren erabilgarritasuna bermatzeko, epe laburrean segurtasun neurri osagarriak hartzea ezinbertzekoa da. Neurri hauek ezohiko gertaerei aurre egiteko balioko dute baita ere, tunelaren barrualdean kotxe batek su hartuko balu, errepideko bertze kotxe eta gidariei segurtasuna bermatzeko, adibidez.

Espainiako Sustapen Ministerio-

ak hiru tunel mota bereizten ditu. Mailaketa egiteko, tunelaren neurketatik ateratako arrisku datuak segurtasun neurri egokiak dauzkan tunel batekin alderatzen dira. Batetik tunel seguruak, 1,15 baino gutxiagoko aldea dutenak. Bertetik, 1,15 eta 1,50 arteko aldea duten tunelak, arriskutsuak izan arren, denboraldi batez erabiltzen jarrai daitezkeenak. Eta azkenik, arrisku handiko tunelak, 1,50 baino gehiagoko aldea dutenak. Belateko tunelaren arrisku datua 3,6koa da eta Almandozkoa 2,3koa. Hortaz, bi tunel hauen segurtasuna bermatu eta tunelak erabiltzen segitzeko, neurri osagarriak hartu behar dira lehenbailehen.



Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRÍDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

E D A R I A K



Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

AZPIEGITURAK → GOBERNUAREN TXOSTENA

Segurtasun neurri berriak beharko lituzke errepide nagusiko tunelak

Aldi batean erabilera mantendu daiteke tunela egokitu bitartean

Maider PETRIRENA

Belate eta Almandozko tunelen larritasuna ez duen arren, N-121-Ako Sunbillako tunelaren egoera ez da egokiena. Segurtasun neurri osagarriak ezartzea derrigorrezkoa izanen da Espainiako Gobernuako Sustapen Ministerioak tunel seguru bezala kontsidera dezan.

Nafarroako Gobernuak iaz bideratutako ikerketaren emaitzen arabera, Sunbillako tunelaren arrisku datua 1,182koa da. Hortaz, tunel seguruaren 2. mailan kokatuko litzake, hau da, erabiltzen jarrai daiteke, segurtasun neurriak hobetzeko aldaketak ematen diren bitartean. 1. mailan, Oieregi-ko tunela dago, 500 metrotik goitikoa tunelaren artean Nafarroako Gobernuak egindako azterke-

ta gainditu duen bakarra. Eta 3. mailan, Almandoz eta Belateko arrisku handiko tunelak dauzkagu, tunel seguru baten arriskua bikoiztu eta hirukoizten dituztenak.

Sunbildarrak artzain amerikanoen bestan

Urriaren 3an ere Ameriketan ibilitako herriko artzainek beraien bestaz disfrutatzeko aukera izan zuten Beran eta ederki aski pasatu



ARGAZKIA: BIDAS IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea berriz lanean

Ulibeltzak Mendi taldeak ere ikasturte berriarekin batera hasiera eman dio itteerei. Lehena irailaren 27an egin zuten, Legatera.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Trikitilari eta panderojoleak Urrozko San Migel bestetan

Urozko San Migeletan Menda Urziketa-Pandero eskolako haur eta gaztetxoek beraien emanaldia eskaini ziguten. Atsalde ederra pasatzeko aukera izan genuen bertaratutako guztiek. Horien artean ere aipatuko ditugu gure herriko panderojoleak fin ibili zirela.

zutela jakinarazi digute. Istolako Julio eta Jesus Mari Jorajuria eta Jose Mari Arretxea *jaibolito*-ak prestatzen abaila ibili omen ziren, bertze artzain batzuekin batera. Datorren urtean elkartaratzea Izaban izanen dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herreratarren denboraldi berria

Herrera anaiek Caja Rurales antolatutako BTT mar txak akitu zituzten irailaren 20an eta irailaren 27an Diario de Navarrak antolatzen duen Openeko lehen karrera Acedon izan zuten. Koldok bigarren postua lortu zuen eta Enekok, aldiz, gorpila leher-tu eta ez zuen karrera akitzerik izan. Hurrengoa Lodosan izan zuten urriaren 4an eta Koldok bigarren eta Enekok seigarren postua lortu zituzten. Urriaren 11n Logroñon izan dira. Guztira 9 asteburuz jarraian izanen dituzte karrarak.

MALERREKA

GIZARTEA → BEINTZA-LABAIENGO ALKATEA

Jon Telletxea da Mankomunitateko presidente berria

Patxi Mariezkurrena, Eratsungo zinegotzia, lehendakari ordea

Marga ERDOZAIN

Irailaren 17an egin-dako bilkuran Malerreka-kako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko lehendakari eta lehendakari ordea aukeratu zituzten bertaratu ziren 16 ordezkariak. Jon Telletxea eta Patxi Mariezkurrena 2015-19 bitarteko legealdian Mankomunitateko buruak izanen dira Alberto San Miguel eta Arrosatxo lbarrari lekukoa hartuta.

Lau batzorde osatu dira: hondakinen batzordea, euskara batzordea, garapen batzordea eta gizarte zerbitzuko batzordea

Irailaren 24an burututako batzordean Mankomunitateak lau batzordeen eratzea eta osaketa onartu zituen. Hondakinen batzordean honako herri hauek parte hartuko dute: Bertizarana, Doneztebe, Eratsun, Urrotz, Zubietta, Sunbilla, Donamaria, Ituren eta Elgorriaga. Mixel Gereka (Iturengeko ordezkaria) batzordeko burua izendatu zen. Garapen batzordean (industria, landa, garapena eta agenda 21); Bertizarana, Do-

neztebe, Zubietta, Eratsun, Sunbilla, Ituren, Donamaria eta Ezkurra. Batzorde honen burua Bertizaranako alkatea, Andres Etxenike izanen da. Euskara batzordean honako herri hauek parte hartuko dute: Donamaria, Eratsun, Zubietta, Sunbilla, Ituren, Doneztebe eta Ezkurra. Batzorde honen burua Doneztebeko ordezkaria izanen da, Marga Erdozain. Gizarte zerbitzuko, berriz, Doneztebe, Zubietta, Eratsun, Ituren eta Sunbilla herriek osatuko dute eta Doneztebeko ordezkaria, Leire Ortuoste burua izanen da.

Batzorde iraunkorra ere egituratu zen bilkura horretan Jon Telletxea lehendakaria izan da eta eratutako batzordeetako buruek lagunduta. Batzorde honen eginkizuna Mankomunitateko jarduera arintzea da, baita lehendakaria laguntzea ere. Mankomunitateko bilkurak bi hilabetetik behin egitea ere onartu zen eta bilerak, ahal den guztietan, astelehenean eginen dira, arratsaldeko 7etan hasita.

Liztor beltzaren aurkako 10 esku hartze burutu dira aurten

Mallerrekako Mankomunitateak aurten 10 abisu jaso ditu eta bertze horrenbertze esku hartze burutu ditu. Ur-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskuz binakako pilota txapelketarako izen ematea zabalik

Errekak antolatutako Malerreka XIV. eskuz binakako pilota txapelketan izen emateko epea zabaldu dute azaroaren 1era arte. Heldu den urteko urtarilaren erdialdera hasita, zazpi kategoriatan banatuak ariko dira.



Ba al zenekien

Doneztebeko herriak Nafarroa Oinez laguntzeko asmotan bere karpa eta oholdza utziko dituela urriaren 18an burutuko den euskaltzaileen bestarako.

FLASH

Heldu hasiberrientzako bertso eskola

Mallerrekako Euskara Zerbitzuak eta Nafarroako Bertsozaleen Elkarteak elkarlanean 10 orduko ikastaroa antolatu dute. Ikastaro honen prezioa 20 eurokoa da (langabetu eta ikasleek 10). Izena Mankomunitatean eman beharko da (euskarazerbitzua@mallerreka.infolocal.org edo 948 451 746 telefonoan). Eguna, ordua eta tokia izena ematen duten pertsonen artean erabakiko da.

Kontsumitzaileen Bulegoko egutegia

Nafarroako kontsumitzaileen Elkarteak Iratxek eskaintako zerbitzua da. Harrera egunak hilean bi ortziraletan Mankomunitateko bulegoetan ematen dira, ordua bertan aurrez hartu behar da. Doaneko bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen du. Udazkenerako bulegoko egunak honako hauek dira; urriaren 23an; azaroaren 6 eta 20an eta abenduaren 4 eta 18an.

URRIAREN 24AN

III. Ernadi Rock jaialdia antolatu du Gazte Asanbladak

TTIPI-TTAPA

Mallerrekako Gazte Asanbladak Ernadi Rock jaialdia antolatu du hirugarren urtez Donezteben urriaren 24an.

Goizeko 10etan herriari buelta musikarekin. 11:00etan haur jokurak. 11:30ean mahai ingurua: 'Ta Malerrekan ze?'. 13:00etan aperitifa.

14:00etan bazkaria (bazkarirako txarrelak Titin eta Iratxon, 8 eurotan salgai). 18:00etan bertso-triki-poteoa ostaturaz ostatu. 21:00etatik 23:00etara bokatak ematen dituzte. 22:30ean kontzertuak: Eztanda, Egurra eta kitto, Txapel punk, Orreaga 778 eta Tirri&tery DJ. Gauerdian zozketak eginen dituzte.

ITUREN

NATURA → EHIZA, ONDDOAK, SAGARRAK, PATXARANA...

Udazkeneko fruituak biltzen hasiak dira han eta hemen

Maika Ariztegik Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi du

Arkaitz MINDEGIA

Udazkenak bere loreak ematen ditu, eta naturak eskaintzen dizkigun fruituak eta bertze bilduz goxatzen ari gara. Argazkietan ikusten den bezala Ixidro Bazterrikak onddo eder eta politak harrapatu zituen eta ehiztariak ere ez dau de geldirik. Nahiz eta usoak oraindik ez diren agertu, basurdeak botatz dabilta asteburuz asteburu.

Maika Ariztegi txapeldun

Hamalagarren aldiz irabazi du Maika Ariztegik Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa. Parte hartu duen guzietan txapela jantzita etorri da etxera. Aurten lehia estua izan zuen eta Maikak arriskatu egin zuen urrutitik jaurtiz eta ongi atera zitzaion.

Alazne bertsotan kantari

Han eta hemen bertsotan ari da Alazne Untxalo. Berriki Emakumeen Mundu Martxak Elizondon egin zuen geldialdian parte hartu zuen bertsoak botatz.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Usoen esperoan, basurdeak eta orkatzak botatzen hasiak dira herriko ehiztariak. Onddo ederrak ere badaude bazterretan, Ixidro Bazterrikak erakusten dituenak bezalakoak.

Javier Sein mendi bizikletan fuerte

Denboraaldiko azken btt txapelketa buru belarri dabil Javier Sein txirindularia. Berriki hasi den Diario de Navarra BTT Openean gogor

abiatu da eta jokaturako bi karreretatik bat irabazi du.

Kultur egunak

Abenduko zubian aurtengoan ere kultur egunak izanen ditu Itu-

renek. Horiek antolatzen gogoz dabilta gazteak, ahalik eta egitarau erakargarriena osatu asmoz. Hurrengo bilera urriaren 16an, ortziral arratsaldeko 7etan izanen dute.

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 3AN

Malerreka kantuz herrian abiatu da aurten

Fermin ETXEKOLONEA

Denboraaldiko lehenbiziko Malerreka kantuz herrian egin zen. Harre-ra ona izan zuen eta giro polita jarri zuten abeslariak. Tragoxka elkarrekin hartu eta taloak ere dastatu zituzten.

Artzainak Beran

Ameriketako artzain ibilitakoen bestan bost

zubietarrek parte hartu zuten: Juanito Babaze, Sebastian Indakoetxea, Marcos Juanikorena, Xanti Hualde eta Tomas Ibarra. Beraien ematekin joan ziren Beraiko ospakizun jendetsura. Tomas Ibarra bil-dutako argazkiak ere jarri dituzte Berako Kultur Etxean egin den erakusketan.



ARGAZKIA: ANDREW SMITH

Plazan kantari, urriko lehen larunbateko Malerreka Kantuz egunean.

Joaldunak lanean

Joaldunek Elgorriagako Kofradiaren Egunean parte hartu zuten, baita Baluartean euskal kantu egunean eta Eus-

kararen Egunean. Igan-dean Nafarroa Oinezen izanen dira Elizondon.

Gaztegunea

Txitxillo elkarteko gazte

gunean Txas Esparza izanen da arduraduna. Ostiral, larunbat eta igandetan 17:00etan 19:00etan zabalduko dituzte atea.

URROZ

OSPAKIZUNAK → HERRIKO BESTAK

Giro ederrean joan dira Sanmigelak

Eguraldi
bikaina
izanagatik
kanpotik jende
gutti hurbildu
da aurten ere

Joseba URROTZ

Honezkero ematen du garai batean Sanmigel bestek zuten itxura aldaketa finkatu dela. Lehen kanpoko jende

franko etortzen zen eta ia urtero euria ere agertzen zen, gehixeago edo gutxiago. Gaur egun berriz, eguraldi bikaina izaten dugu ia egunero, eta herritarrek ia bakarrik izaten gara bestetan. Urtero bezala, pilota partida, aizkora apostua, herri bazkaria, haurjokuak, dantza, traguak... Beti ere giro politoan eta elkarrekin gustora egoteko aukera aprobetxatuz.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Kanpotar aunitzik agertu ez bada ere, herritarrek ederki pasatzeko aukera izan dute.

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 4AN

Onddo eta Zizen kofrade berriak izendatu dituzte

Jose Sacristán
aktore
madrildarra eta
EITBko
zuzendaria
izendatu
dituzte
bertzeak bertze

TTIPI-TTAPA

Jose Sacristán aktore madrildarra, Eduardo Barinaga EITBko zu-

zendaria, Txumari Alfarro Argedasko naturopata, José Juanico Bou margolari kataluniarra, Zacarías Puente Herbo-so Kantabriako Gaztaren Kofradiako presidentea eta Francisco Arroyo Lobo diseinatzailea dira Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiako Ohorezko kide berriak. Halaxe izendatu zituzten urriaren 4an Elgorriagan Kofradiak egin zuen hogeita bigarren besta egunean.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Onddo eta Zizen Kofradiako kideak, berriak aitzinean daudela.

Ekitaldia, Iruñeko Santa Maria La Realgo ahots lodien abesbatzak kantatutako meza-ren ondotik egin zen izendapena eta ospakitzunean, bertze hainbat kofradietako kideek ere parte hartu zuten. Bertzeak bertze, Nafarroa-

ko Olioaren Kofradia, Erronkariko Gaztarena, Bidasoko Izokinarena, Nafarroako Zainzuri eta Ardoenak eta, lehen aldiz, Sarako Usoaren Kofradia ere izan ziren Elgorriagan. Zubietako joaldunak ere karrikaz karrika ibili ziren.

Kaxuela lehiaketan parte hartu zuten kofradietako kide gehienek, Jose Miguel Galarrégi gidari zutela. José Juanico Bou kofrade berriak emandako margolana zozketatu zen eta Arantxa Olagarai suertatu zen saridun.

GERTAERAK → HAIZEAK HEGATU ZUEN ZATI BAT

Frontoiko teilatua moldatu behar izan dute

Bi haur jaio dira udazken hasieran

TTIPI-TTAPA

Duela aste batzuetako haize bortitzen ondorioz, frontoiko teila-tuaren zati bat hegatu zen. Arazo hori behar bezala moldatu dute dagoeneko.

Berri onak

Azken aldian zenbait herritarren heriotzaren berri eman behar izan dugu, baina oraingoan pozik egoteko arrazoiak baditugu, bi haur jaio baitira udazken hasiera honetan: Ekain (Ivan eta Sandra-ren semea) eta Ruben (Martin eta Maitaneren

semea). Beraz, dagoeneko hamar haur baditugu herrian eta kopuru horrek, 1999an ikasle gutxi zeudelako itxi behar izan zen eskola berri ere irekitzeko bultzada eman dezake.

Ehiza denboraldia

Irailaren 28tik urriaren 7ra oporrak hartu eta itxia egon ondotik, berriz ere zabalik da Barranka Ostatua. Onddoak, gaztainak edo lehenbiziko usoak dastatzera hurbiltzen diren herritarrek ez ezik, Txanxangorri elkarteko 60 ehiztariek ere gustura hartu dute normaltasunera buelta. Ondoko argazkian ageri denez, postuak egoki prestatuak dituzte ehiztariek.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Frontoiko teilatua moldatzeko lanak goiko argazkian eta ehiza postuak behean.





1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi nordikoetan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ARESO

AI SIALDIA → 15 PERTSONEK EMAN DUTE IZENA

Helduentzako kirol-jarduerak iaz baino beranduago hasiko dira

Panpanoziri aldizkariaren hirugarren alea ere bidean da

Juana Mari SAIZAR

Kirol mankomunitateko teknikaria, Ruben Goñiren ordezkaria, aukeratzeko oposaketak egiten ari dira eta horren ondorioz, ikastaroak antolatzeke orduan gauzak ohi baino mantsoago doaz. Umeen-tzako psikomotrizitate ikastaroa prest dago eta

monitorea ere izendatu dute baina helduentzako ikastaroen gaineko informazioa oraindik ez da zehaztu. 15 lagunek eman dute izena eta hasteko gogoz daude. Ea epe laburrean taldea martxan jartzen den.

Panpanoziri martxan

Panpanoziri aldizkaria banatu zenetik bi urte pasa dira dagoeneko eta hirugarrena bidean da. Aldizkariako edukiak osatzeko garaian jende askok par-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Itxaso Onsalo txapeldun Nafarroako arpana txapelketa mistoan

Nafarroako arpana txapelketa mistoa irailaren 27an ospatu zen Igantzin. Herriarra dugun Itxaso Onsalo eta bere kirol laguna, Mikel Eugui txapeldun suertatu ziren. Emakumeen arpana txapelketetan azpitxapeldun izan da behin baino gehiagotan. Orain, lan asko egin ondoren, saria etorri da. Zorionak Itxaso, langile fina zara eta horrek emaitzak ematen ditu. Batzuetan presa izaten da, baina gauzak bere denbora behar dute. Animo eta jarraitu horrela.

te hartu du, beraien iritzia, garai bateko eta oraingo kontuak... esanaz eta baita argazkiak utziz ere. Lan taldeak eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten guztiei; denon artean osatzen delako aldizka-

ria. Ea emaitza gustuko duzun!

Errigora kanpaina

Euskara taldea ere biltzen hasia da eta lantzen ari diren gai eta ekimenak asko badira ere, udazkenean sartu be-

rritan, Errigora ekimena bultzatzea erabaki dute. Iaz ere kanpaina egin zen eta herritarrek erantzun ona eman zuten. Aurtengo kanpaina hasi da. Gogoan izan zure laguntza euskarak eskertuko duela.

ARANO

HITZORDUA → HERRIGINTZA ESKOLAREN BAITAN

30 lagun inguru bildu ziren Ixerkein egindako astronomia saioan

Arantzadiko 4 adituk eman zituzten azalpenak

Ainhoa ANSA

Herrigintza eskolaren barruan, izarrei begira jarri ziren urriaren 3an Ara-

noko haur, gazte eta gurasoak. Iaz egin zen lehenengo aldiz eta lagun asko gerturatu zen Ixerkeiko zabalera astronomoen azalpenak entzun eta ikus zitezkeen konstelazio edo planetak ikusteri. Hildako izar bat eta Andromeda galaxia ikusteko aukera izan zen.

Bezperako zeru es-taliaren kopetarekin arduratuta egonagatik, Arantzadiko astronomia ataleko kideekin hitz egin eta gero, aurrera egitea erabaki zuen antolakuntzak eta arrakasta handia izan zuen ekimenak. 30 pertsona inguru bildu ziren, tartean Aran-

tzadiko lau aditu eta kanpotik etorri zen beste bat.

Ixerkei gustoko izan dute beti izarrak ikustea maite dutenek. Argirik ez zegoenean paisaia narteka agertzen ziren teleskopioak eta gisako tramankuluak hartuta hainbat ikertzaile nahiz zale-tu, eta tartean baita Aran-

zadiko kide hauek ere. Gero farolak jarri ziren eta paisaiatik desagertu ziren teleskopioak hala-beharrez. Hori zela eta, gurekin harremanetan jarri ziren duela urte bete pasatxo eta geroztik al-dian al-dian izarrei begiratzeko tarte bat hartzea erabaki zen.

GOIZUETA

GIZARTEA → URRIAREN 19TIK AURRERA

Goxali liburutegi-ludotekak ateak zabalduko ditu aurten ere

Astelehen eta ostiraletan, Maialen Huizi eta Larraitx Salaberriaren eskutik

TTIPI-TTAPA

Herriko haurrak hasi dute eskolan ikasturtea, eta laster irekiko ditu ateak Goxali liburutegi-ludotekak ere. Urriaren 19an hasita, Maialen Huizi eta Larraitx Salaberri hezitzaileak astelehen eta ostiraletan bertan izango dira. Astelehenetan Joku Tailerrak egingen dituzte, 17:00etatik 18:00etara Haur Hezkuntzakoentzat (3, 4 eta 5 urte) eta 18:00etatik 19:00etara Lehen Hezkuntzako 1, 2, 3 eta 4. mailakoentzat. Ostiraletan, liburutegi moduan irekiko da



UTZITAKO ARGAZKIA

Alkateak eta herritar batek Auzitegi Nazionalan deklaratu zuten

Unai Loiarte alkateak eta Olaia Lekuona bizilagunak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren zitazioa jaso zuten, eta urriaren 8an Madrilera joan behar izan zuten deklaratzera. Eloy Velasco epaile instruktoreak sinaturiko zitazioan, «terrorismoaren apologia» egin izana leporatzen zaie bi goizuetarrei, baina zitazioak ez zuen argipen gehiagorik ematen, eta beraz, ez zekiten zein zen Unai eta Olaiari «terrorismoaren apologia» delituaz akusatzeko gertakari zehatza. Egoera honen aurrean, ehundik gora herritar hurbildu ziren plazan egindako asanbladara, Unai eta Olaiari herri babesa adieraztera.

17:00etatik 18:00etara, LHko 3, 4, 5 eta 6. mailakoek eta DBHko ikasleek irakurri edo etxeko lanak egin ditzaten eta 18:00etatik 19:00etara joku tailerrak egingen dituzte LHko 5. eta 6.

mailakoentzat eta DBHko 1. eta 2. mailakoentzat.

Hilabetearen behin egiten diren guraso eta haur joku tailerrak, berriaz, urriaren 29an arratsaldeko 5etan hasiko dira.

Azienda Feria Eguna prestatzen

Azaroko azken larunbata izanen da aurten ere Azienda Feria Eguna. Hura prestatzen hasteko, azientak ekarri na-



Pertsonaia
Aritz ZUBIRI

Iraileko erremontelari onena

Oriamendi 2010 enpresak hilabetero egiten duen rankingaren arabera, B multzoko erremontelarien artean iraileko onena izan da Aritz Zubiri. 37 puntu lortu ditu. A multzoan Urriza onena.

hi dituenak edo barazki, eskulan, tresna zahar edo bestelakoekin erakusketarako edo saltzeko postu bat jarri nahi duenak izen eman dezake udaletxean, azaroaren 6a baino lehen.

GIZARTEA

ABELZAINZA → AZAROAREN 6AN EMANEN DITUZTE SARIAK MURTZIAKO LORCA HIRIAN

Eskualdeko zortzi zerri granja proposatu dituzte Porc D'Or sarirako

Nafarroako ustiatzeki sarietarako 17 izendapen dituzte, iaz baino 3 gehiago

TTIPI-TTAPA

Estatu osoko zerri ustiatzeki bikaintasuna saritzen duen Porc D'Or lehiaketako sarietarako Nafarroako hamalau zerri ustiatzeki proposatu dituzte, horietatik zortzi eskualdekoak.

Zehazki, atal ezberdinetarako lehen sarietarako proposatu dituzte ustiatzekiak: Zerramako tititik kendutako zerrikuemen kopuruarengatik ematen den sari nagusi-rako, Azpilkuetako SC Arizaleta Dainziart, Le-

kazoko M^a Josefa Telletxea Gortari, Urrozko Jose M^a Iribarren Etxegia eta Zugarramurdiko Fco. Mihura Arraztoa daude izendatuak. Emankortasun numerikoaren atalean, Berroetako SC Maritoren eta Etxenike eta Itu-

rengo Isidro Bazterrika Mutuberria eta Umatze Tasa atalean, Arizkungo SC Irigoien-Rekarte, Iurritako Miguel Angel Maritoren Argain, Urrozko Jose M^a Iribarren eta Zugarramurdiko Francisco Mihura Arraztoa.

LEITZA

GIZARTEA → ALKE ETA ZALETUEK ANTOLATUTA

IX. Mikologialdia
urriaren 19tik 25era
izanen daErakusketa
mikologikoa
igandean
eginen dute

JM BARRIOLA

ALKE Leitzako Kultur Taldeak eta herriko perretxiko zaleek elkarlanean antolatu dute Mikologialdia. Asteazkenetik aurrera, herriko mikologiaren zerikusia duten gaiak landu, eskulanak egin eta gero horietatik urriaren 25ean plaza apaintzeko erabiliko dira. Igandean, ohiturarekin segiz, erakusketa mikologikoa osatzeko asmoa dago eta ikustez gain, dastatzeko aukera ere izanen da, onddo eta perretxikuekin presatutako pintxoak eskainiko dira eta. KXKbeltza Elkarteko kideei ere komertzioak udazken kolorez apaintzeko eskatu zaie. Urriaren 23 eta 24an, arratsaldean, nahi duenak ekarri ditzake karrapera bildutako xixak. Larunbatean, urriaren 24an arratsaldean sail-

katuko dira, igandeko erakusketarako prest uzteko. Urriaren 24an, bertan ere, guraso eta haurrek Mendibil taldekoen laguntzarekin, mendi irteera egingen dute.

Ahalduntze eta
bioenergetika
tailerra

Gizarte zerbitzuak antolatu du tailerra eta gizon eta emakumei zuzenduta dago. Urriaren 16an hasi eta datozen hilabeteetan emanen dituzte saioak, 09:30etik 12:30era kiroldegian. Tailerraren helburuak, Gorputza bakoitzaren onurarako lantzea da, etekin handiagoa ateratzeko: gai sentitzeko, disfrutatzeko, mugak jartzeko, tentsioak askatzeko, emozioak antzemateko. Talde batean parte hartu, momentuan dugun hori konpartitu, konfidentzialtasuna gorde eta konprometitzea. Gorputza, oinetatik bururaino, askatzen eta indartzen ikastea da



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Emakumeen Mundu Martxa Leitzatik pasa zen irailaren 29an

Herriar ugari plazan zain zituen irailaren 29an Emakumeen Mundu Martxaren karabanak. Ongi etorri beroa egin zieten eguerdian eta herria bera ere apaindu zuten Erleta eskolako haurren marrazkiekin. Harrera egin ondotik, kalejiran udaletxe atzean dagoen parkera joan ziren eta bertan zuhaitz bat landatu ondoren plaka jarri zuten esaldi honekin: *Martxan jarraituko dugu denak aske izan arte*. 14:00etan Torreon bazkaldu eta 16:30ean abiatu zen karabana herritik. Ekitaldiekin segitzeko, urriaren 15ean *Hazien garrantzia elikadura burujabetzan* hitzaldia eta bideo emanaldia izanen dira 19:00etan Atekabeltzan eta ondoren tertulia.

asmoa. Parte hartzeko, 18 urtetik gorakoa izan, gizarte zerbitzuetan izena eman eta hilabeteetan 2 euroko kuota ordaindu behar da.

Informazio panelak

Leitzako Udalak, herriko auzo desberdinetan informazioa emateko guneak egokitzeko asmoa du. Zehazki, 10 panel jarriko dira puntu desberdinetan.

Proiektu hau, aurreko legegintzaldian burututako aurrekontu parte-hartzaileen egitasmotik dator. Herritarrek kaletan jartzen den informa-

zioa ordenatzeko beharra azaldu zuten eta horren harira, Udalak hainbat batzar ireki burutu zituen gaia aztertzeko. Batzar horietan adostu zena jarraituz, Udalak informazioarako panelak jarriko ditu herriko hainbat puntutan. Horrela, Udalak zein herriko eragile eta norbanakoek beren komunikazioan erabiltzeko baliabide bat ge-

hiago izango dute. Informazioa erdigunea baino eremu zabalago batera iritsiko da eta herritarrek informazioa bilatzeko gune erreferentzialak izango dituzte hemendik aurrera. Udalak, azken zehaztapenak lotzeko batzar batera deitu ditu eragileak. Hori eta gero, ahalik eta azkarren jarriko dituzte panelak.



Ba al zenekien

Leitza kaxkoz kaxko zeharkaldia antolatu duela Mendibil BTTk urriaren 18rako. Leitza inguruko mendietan, 42 km-ko ibilbidea egingen dute, 09:00ean Plazaolako estaziotik abiatuta.


7.000 EUROKO GAINKOSTUA OSORIK HARTU DU BERE GAIN UDALAK

Haur-eskolako zerbitzuan egindako moldaketekin eskaera kopuruari erantzun ahal izanen zaio

JM BARRIOLA

Aurten arratsaldeko txandarako aurreikusia baino eskaera handiagoa egon da. Hori dela eta, beste modulu bat egokitu behar izan du Leitzako Udalak. Horrekin batera, haur-eskolako langileek antolaketa aldatu dute eta bi langileren ordu-tegiak moldatu behar izan dira (ordu bat gehiago bakoitzak) eta horrela arratsaldeko 4ak arteko zaintza zerbi-

tzua eskatzaile guztientzat bermatuta geratuko da. Gurasoei azaldu zitzaizkenez, zerbitzua zabaltzeko diru-laguntza aurreikuspenik ez zegoen Nafarroako Gobernutik. Hezkuntza sailaren laguntzaren faltan, Leitzako Udalak esfortzu ekonomiko bat egingen du. Aldaketa honek, Leitzako Udalari, 7.000 euro inguruko gainkostua suposatuko dio ikasturte guztian (% 3 gehiago).

Koipuak ailegatu dira
Leitzara

Duela urte batzuk Frantziako larru granja batzuetatik libre utzi ondoren, koipuak Euskal Herriko erreka bazterretan agertzen hasi ziren. Dirudieenez, hemen harrapari naturalik ez dutenez ikaragarri zabaltzen ari dira eta kalte handiak eragiten dituzte baratz eta erreka bazterretako landaredian. Bidasoa aldean agertu ziren eta gure inguruan ere, bakarren batzuk ikusi izan direla diote. Baina, orain susmoetatik haratago, errepidean kotxe batek harrapatua azaldu da koipu bat. Nafarroako mendizainei abisua eman zaie eta ahal den neurrian jakitun dira, kontrolatu ahal izateko.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 18AN

Nafarroa Oinez ospatuko dute igandean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Urriko hirugarren igandean, *Hamabortz, ama bat* goiburupean ospatuko den Nafarroa Oinez bestarekin boro-bilduko dute urte osoan Baztan Ikastolak landu duen proiektua.

Lekaroz, Elizondo eta Elbeite lotuz, 5.800 metroko ibilbidea osatu dute antolatzaileek. Ibilbidearen baitan lau gune izanen dira: Basaburua, Erbera, Elizondo eta Baztangoiza. Hauetan, goizeko 10ak aldera hasi eta arratsaldeko 6ak ingurura arte musika, kirola, jolasak... mota guzietako ekitaldiak izanen dituzte bisitariek esperoan. Musika arloan, Zea Mays, Hesian, Kallakan edo Tximeleta bezalako talde ezagunek joko dute eremu ezberdinetan, bertako musika

eta dantza taldeekin batera. Euskarari kantatuko dion abesbatzarik handiena ere osatu nahi dute. Herri kirol saioa edo Erronka ere izanen dira (Informazio gehiago 647. alean).

Antolatzaileek jendea parte hartzera animatu nahi dute eta herrietatik etorri behar diren horiei, «guk jarritako seinaleei kasu egiteko eskatu, baita trafikoa bideratzen egonen direnei kasu egitea» eskatu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaltzaindiako kideak Baztan Ikastolaren Pilarreko ikastetxean.

NAFARROA OINEZEKIN BAT EGIN DU EUSKARAREN AKADEMIAK

Mariano Izetari gorazarre egin diote Euskaltzaindiak eta Baztan Ikastolak bere jaiotzaren mendeurrenean

TTIPI-TTAPA

Nafarroa Oinezekin bat egin du Euskaltzaindiak. *Hamabortz, Ama bat* da aurtengo edizioko leloa eta horri keinu eginez, hamabortz euskaltzain izan ziren irailaren 25ean Elizondon. Joseba Otondo alkateak ongi etorria egin zien euskaltzainei. Ondotik, akademiak osoko bilkura egin zuen Balleko Etxean bertan. Euskaltzainek Baztan Ikastolako bi erai-kinak, Parkekoa eta Pilarrekoa, bisitatu zituzten.

Arratsaldeko ekitaldian, bere jaiotzaren mendeurrenean, Mariano Izetari ohorezko euskaltzaina omendu zuten Arizkunenean. Paskual Rekalde euskaltzain urgazle amaiurtarrak Mariano Izetaren zenaren *Dirua galgarri* eleberriaren berrargitalpenari buruzko solasaldia eskaini zuen. Berrargital-

pen partekatua izan da. Euskaltzaindiak eta Baztango udalak elkarlanean burutu dute. Rekaldek, lan hau euskara batura egokitzeke lana egin du. Bailarako bertze bi euskaltzain urgazle ere gogoratu zituzten: Joxe Azkarate Etxandi aniztarra eta Blas Fagoaga Ariztia erratzuarra.

Segidan, Baztan Ikastolako seigarren mailako ikasleek Mariano Izetaren biografia laburra egin zuten. *Axerie* eta *Otsoa* ipuina irakurri eta Bittor Elizagoienek Mariano zenari idatziriko bi bertso kantatu zituzten.

Ondotik, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza, Mariano Izetaren lanari gorazarre eginez eta eleberrian, berak idatziriko hitzak adieraziz. Ekitaldiari akabaila emateko, Nafarroa Oinezko kanta kantatu zuten denek elkarrekin.



Víctor Pérez Agrícola S.L.

NEKAZARITZAKO MAKINERIA, LOREZAINZA, JOSTAILU-DENDA
T. 948 70 39 27 · Zaragozako errep., 37.km · 31300 · TAFALLA (Nafarroa)
www.victorperezsl.com

BAZTAN ETA MALERREKAKO TAILER KOLABORATZAILEA:

BAZTAN MOTOR S.L.

Zaldubia Ind. 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 · 948 58 06 55
M. 629 03 09 28

- Ibilgailu berrien eta okasiokoen salmenta, aztertutak eta bermatuak
- Marka guztietako auto, lur orotariko eta furgonetan konponketa mekaniko eta elektrikoak
- Txapa eta klase guztietako karrozerien konponketa: burdinezkoa, aluminiozkoa eta poliesterezkoa
- Blac-Hawk bankadako kolpeen konponketa eta P.188MK2 neurtzailea
- Pintura sintetikoak, akrilikak eta ur-pintura (ekologikoa)
- Ibilgailuen pertsonalizazioa, aire girotuaren birkarga, bolazko krokagailuen eta klase guztietako osagarrien muntaia
- I.A.T. aurreko linea
- Bezeroentzako grua zerbitzua



BAZTAN

GIZARTEA → ALKATEA GAITZETSI DU OPOSIZIOAK

Aroztegiko proiektuak zer errana sortzen segitzen du

Proiektua geldiarazteko eskaria ez zuela alkate bezala egin dio Joseba Otondok, Batzar Nagusiko presidente bezala baizik

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegi-ko Udalez Gaindiko Proiektu Sektorialaren (UGPS) azken aldian gertatutakoen inguruan solasteko agerraldia egin zuten irailaren 30ean Joseba Otondo alkateak eta EHBildu eta Baztango Ezkerrako udal gobernu taldeko kideek. Proiektua gelditzeko Nafarroako Gobernuari egindako errekerimendua Joseba Otondok Batzar Nagusiko presidente bezala egin zuela aipatu zuten eta ez Baztango alkate bezala.

Agerraldian aipatu zutenaz, Baztango Batzar Nagusiak uztailaren 1eko batzarrean Aroztegiako UGPSa gelditzeko Nafarroako Gobernuari errekerimendua egitea onartu zuten eta Batzar Nagusiko presidentek, Jo-

seba Otondok, hala egin zuten. Batzar Nagusiaren izenean errekerimendua aurkeztu zuten. Uztailaren 23ko udaleko osoko bilkuran, udalak Aroztegiako PSISa gelditzeko Nafarroako Gobernuari errekerimendurik ez egitea onartu zuten, eta Baztango alkateak Joseba Otondok, hala egin zuten. Udalaren izenean errekerimendurik ez zuten aurkeztu.

GEROA BAIREN GAITZESPEN MOZIOA

Honela, EHBilduk eta Baztango Ezkerrak ez dute ulertzen Geroa Baik alkatearen kontra aurkeztu eta UPN eta Baztan Auzolanean taldeko zinegotzien bozekin onartutako gaitzespen mozioa eta «jokaldi politiko zikin eta miserablea» dela uste dute.

Geroa Baik gaitzespen mozioan erraten duena gezurra dela eta alkateak ez duela betetzen ahal ere aipatu dute, «Baztango alkateak ez baitu Nafarroako Gobernuaren aitzinean errekerimendurik aurkeztu». Alkateak osoko bilkuraren erabakiaren kontra jo duenik gezurra dela berretsi ondok, Geroa Bai eta mozioa onartu zuten gainerako alderdiei behar bezala zuzentzeko exijitu diete.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztango eskola ttikien besta

Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen 9. besta ospatu zuten irailaren 27an Arizkun. Goizean Arizkongo sagardantzariek agurra eskaini zuten eta gero herria ezagutzeko ibilaldia abiatu zen. Bozaten barna ibili ondoren trikitilarien doinuek alaiturik kalejira burutu zen Lamierritatik Arizkongo herrira. Bazkari autogestionatua egin zen eta atsaldeko partean gozatzeko modua izan zen Irri-lagunen ikuskizuna, Hauspolarien dantzaldia eta plazan jarritako puzgarriekin.

UGPSA BERTAN BEHERA UZTEKO ESKARIA

Bertze aldetik, Nafarroako Gobernuari Aroztegiako UGPSa bertan behera uztea eskatu diote Aroztegia eta gero zer? Plataformak eta Sustrai Erakuntzak taldeak: «Ez dago aitzakiarik —diote idatzian— herriaren hitza zein tokiko administrazioen konpetentziak eta au-

tonomia ez errespetatzeko, ezta UGPSak interes soziala defenditzeko erabili beharrean interes espekulatzaileak lehenesteko ere». Nafarroako Gobernuak gehiengo sozialak eskatu duen aldaketa soziala gauzatzeko bidean urrats hau ematea ezinbertzekotzat jo dute eta hau egin ezean, hainbertze aldarrikatu

eta irudikatutako aldaketa iruzurra bertzerik ez dela izanen uste dute. Gai honen inguruan sinadura bilteta kanpaina hasi da eta mahaingurua ere egin zuten Lekarozen urriaren 2an. Aroztegia eta Gero zer? Elkarteko Garbiñe Eliategi, Sustrai erakuntzako Martin Zelaia eta Paula Kasares hizkuntzalariekin.

2016AN MOLDATUKO DA BEHIN BETIKOZ DIRULAGUNTZAREKIN

Sumutsuko bidea behin behinekoz irekitzeko lanak hasi ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

Irail akabailan Mikel Ortega zinegotzia eta Nafarroako Toki administrazioako teknikaria Aritzakunen herisirik den Sumutsuko parajeko bidea ikusten egon ziren. Teknikariak arazoaren larritasuna bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten baita hango baserritarrei egoerak ekartzen dien kaltearen berri izateko ere. Teknikariak horiek guztiak baloraturik, gaia Toki Administrazioako departamentutik Landa Garapenerat igortzea erabaki zuten nekazaritza azpiegitura delako. Hori horrela, bidea behin betiko konpontzeko aurtengo

neguan izandako erauntsiek egin dako kalteak konpontzeko dirulaguntza deialdira aurkezteko aukera dagoela jakinarazi zuten. Horrek bidea %100ean finantzatzeko aukera eman badezake ere afera 2016rat gibelatzea ekarriko luke. Horrela gauzak, udalak soluziobidea mantsotuko dela ikusirik, bidea behin-behinean edo probisionalki lehenbailehen irekiko du. Irekitze hau guztiz probisonala izanen da heldu den urtean dirulaguntzekin behar den bezala konpondu bizkirtartekoa. Udalak bide behin-behinean irekitzeko lanak irailaren 30ean hasi zituen.

OSPAKIZUNAK → PARTI APARTA IZANEN DA AKITZEKO

XVI. Kirikoketa Eguna ospatuko dute hilaren 24an

Gamioxarreko dolarean sagardogintza erakustaldia antolatu du Jo ala Jo kultur taldeak

TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo kultur taldeak hamaseigarren urteaz antolatutako Kirikoketa Besta Arizkuneko ospatuko dute urriaren 24an. Egun osoko ekitaldiekin batera, larunbat goizeko 11:00eta-

tik aitzinera XVIII. mendeko Gamioxarreko dolare barrokoan sagardogintza erakustaldia ere egingen dute: sagar jotzea, lehen estutze edo tinkatzea, zuku dastaketa eta kupelaratzea. Lanak akitutakoan kirikoketa jotzea egingen da. Herrian barna taloak dastatzeko eta dantzariak, artisauak ikusteko aukera izanen da.

Segidan bazkari herrikoa izanen da eta ondotik, kalejira berezia egingen dute. 20:00etan parti aparta iragarri dute kupelategian.

URRIAREN 15 ETA 29AN ARIZKUNENEAN

Landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira zenbait ekitaldi prestatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira bi ekitaldi antolatu ditu Baztango Udaleko Berdintasun Batzordeak eta Baztango Emakumeen Mundu Martxako taldeak. Batetik, Larre motzean dokumentala ikusteko aukera izanen da urriaren 15ean, arratsaldeko 7etan Elizondoko Arizkunenean.

Bertzetik, Brasilgo nekazal borroka eta borroka feminista gertutik ezagutzeko hitzaldia emanen dute Saioa Iraola Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak eta Beatriz Casado Agroekologian adituak, urriaren 29an arratsaldeko 7etan Arizkunenean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Azken bi ikasturteetako hondakin organikoak birziklatu eta konpost bihurtu dituzte Amaiurko eskolako ikasle-irakasleek

Azken bi urte hauetan eskolako ikasle eta irakasleek beren gosarrietan eta ikas-tetxean bertan bazkaltzen dutenek bazkarietan ere sorturiko hondakin organikoak bereizi eta Udalak jarritako konpostagailuan konpostatu dituzte. Udaleko hondakin teknikariaren aholkuak jaso badituzte ere, lan guztia beraiek egin dute. Eskolako ikasle guztiak parte hartu dute prozesuan eta zaharrenak izan dira astero nahasteaz eta gai idorra gehitzeaz arduratu direnak. Irailaren 28an beren lanaren lehendabiziko emaitza lortu zuten, itxura ezin hobeko konpost ondua! Orain honenkin zer egingo duten erabakitze lanetan ari dira eta ez zaie ideiarik falta!

LAN ARRAZOIENGATIK IZAN DELA DIOTE ZUZENDARITZATIK

Arraiozko Hiper Simplyko langile baten kaleratzea salatzeke elkarretaratzea egin zuen LAB sindikatuak

TTIPI-TTAPA

LAB sindikatuak Arraiozko HiperSimplyko langile baten kaleratzea salatzeke elkarretaratzea egin zuen irailaren 30ean supermerkatuaren atarian. Hauteskunde sindikaletan LABen hautagaia izan zen langilea eta berriki enpresak lan hitzarmena betetzen ez zuelako enpresa salatua zuela aipatu dute sindikatutik. LABek uste du «langile honen kaleratzea hauteskunde sindikaletan hautagaia izateaz gain bere eskubideak erreklamatzegatik izan dela, langile honen portaera enpresarentzako oztopoa zelako eta paretik kendu nahi zutelako».

Azkeneko hauteskunde sindikaletan enpresak hiru hautagai aurkeztu zituela dio LABek, «eta langileekiko mehatxuen bidez beraiek hautatzea lortu zuen, langileei erranez hautagai horien alde ez bozkatzuz gero garesti ordainduko zutela».

LAB sindikatuaren erranetan, «enpresak langileari ez ezik, lanean gelditzen diren langileei atentzioa

deitu nahi izan die kaleratze honekin, beldurra zabaltzeko eta jendeak sinestarazteko egoera aldatu nahi duenak eta mugitu egiten den langileak langile honen ondorio berdinak jasango dituela».

LABen salaketak ukatu ditu enpresak, «erabat gezurra» direla erranez. Esteban Elorga, Hiper Simplyko gerentearen erranetan, «LABek bere idatzian marrazten duen panoramaren arabera, badirudi joan den mendeko enpresa batean gaudela, tratatu txar, mehatxu eta presioekin, baina hori errealitatekin oso urruti dago». Kanporatutako langileari dagokionez, «gai zehatza da eta lana ez betetzeari dagokio eta ez du inolako zerikusirik sindikatu bateko edo berteko kide izatearekin, gure artean LAB, ELA edo UGT sindikatuko kideak baititugu». Zuzendaritzak dioenez, «guretzat oinarritzko balioak dira langileekin eta bezeroekin dugun harremana eta irudia, eta LABen idatziarekin, hamar urrats gibelera egin ditugu, doi-doi hiru aitzinera eginak genituenean».

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

ZUGARRAMURDI

KULTURA → URRIAREN 24AN

Martikorenak eta Iruñeko Orfeoia lezean kantatuko dute

Mikel Markez eta Baztango dantzariak ere arituko dira ikuskizunean eta sarrerak 15 eurotan salgai daude

Margari eta Koro

Urriaren 24an lezean ekitaldi eder bat ikus- teko eta aditzeko aukera izanen dugu lezeetan, 20:00etan hasita: Erramun Martikorena Urepeleko abeslari handia eta Iruñeko Orfeoia elkarrekin kantari ariko dira. Orfeoian Diana Yerrok joko du pianoa eta Paula Goñik txirula, Igor Ijurraren zuzendaritzapean. Espektakulo honetan, Mikel Markez eta Baztango dantzariak ere arituko dira, Sunbilla eta Igantziko dantzariak lagunduta.

Sarrerak 15 euro bali du, eta lezeetan sal- tzeaz gain, Urdazubiko Montxon, eta Berako Agaran salgai jarri dituzte. Edo internetez ere, helbide honetan erosi daiteke: www.entradascajarural.com

Jubilatuak martxan

Gan den udan sortutako "Harreman" Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilatuen elkarteak, ari da poliki-poliki mar- tx hartzen. Astearte arratsaldero jubitoteka bat daukate, eta ekital- di desberdinak egiten dituzte. Horretaz gain bertze gisakoak ere egi- nak dituzte: Urdazubi- ko hegaztien erakuske- tan egon ziren, eta abuztuaren hondarrean mus txapelketa bat an- tolatu zuten. Hurrengoa Berako Zahar Etxea bi- sitatzea izanen da, be- raiek egindako bisita i- tzuliz.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Mus txapelketa ere jokatu dute jubilatuen elkartekoe.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Emakumeen Mundu Martxakoak, Zugarramurdiko plazan, sorgin eta guzi.

IRAILAREN 29AN

Emakumeen Mundu Martxa herrira ailegatu zen

Margari eta Koro

Irailaren 29an, Ema- kumeen Mundu Martxa

Zugarramurdirat ailega- tu zen. Martxa hau Kur- distanetik abiatu zen

martxoaren 8an, eta Portugalen finituko da urriaren 17an.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzalde 31660 LUZAIDE

tabac prêt à porter restaurant supermarché tabac cadeaux maroquinerie

GIZARTEA → HERRIKO ETXEAK ESKATUTAKO BALDINTZAK BETETZEA EZINEZKOA ZEN

Urdazubiko lokala etsi behar izan du Jubilotekak

Azaroa arte,
Kultur Etxeko
bertze
lokalaren
esperoan

Iñigo IMAZ

Egin ahal guztiak egin arren, Axun Iratzokik eta Amaia Iriondok zuzentzen duten Jubiloteka proiektuak Zugarramurdiko lokalari eustea erabaki du. Tristuraz eta Urdazubiko Herriko Etxeak eskainitako lokalaren zain (Kultur Etxe berrian kokatuko litzatekeena), Salbatore Plazako lokala hertsu dute azaroa arte.

Amaiaren hitzetan, Jubiloteka proiektua merkantilismotik ihes egin nahi duen ekimena da, autokontsumoan eta autogestioan oinarrituriko proiektu berritzailea. Urdazubiko Herriko Etxeak 3.000 euroko dirulaguntza onartu arren, baldintza ezinezko bat jarri omen zieten hori lortzeko, justifikatu beharreko gastuen %25a izatea. Horretarako, 12.000 euro gastatzera behartzen zituzten eta gaur egun ezinezkoa da hori. Zugarramurdiko Udalak, 1.500 euroko dirulaguntza eskaini zien,



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jubilotekako arduradunak eta erabiltzaileak.

baldintzarik gabe, eta lokala ere utzi die. Baina Zugarramurdiko lokala gazteenentzako egokia izan arren, Urdazubiko lokala dependentsia maila altuagoa dutenentzako toki aproposa zen. Azaroa bitartean, beraz, ez da au-

rreikusten Urdazubin dependentsia dutenentzako lokalik irekitzea. Aurrerago ikusiko da.

Akitzeko, abian da, Xaretako jubilatuei eta pentsiodunen elkarteak, eta mugan egoteagatik lortu daitezkeen dirulaguntzak aztertzen hasi

dira. Izan ere, Udalbiltzaren dirulaguntza eta Zugarramurdiko Udalarena baitira momentuan esperantza ez galtzeko duten oinarri sendoenak. Hori eta eskualdeko aitaxi eta amaxien, nahiz senideen animoak.

ZUZENKETA

Lezeak babesteko neurriak Diharasarri alkate zela

TTIPI-TTAPA

SOS Alkerdi Plataformako kide baten hitzak jaso genituen aurreko alean. Alkerdi- Berroberriko lezeak babesteko aurreko belaunaldiak hartutako neurriak goraiatzaren ziren, bereziki Pantxo Iribarren alkatearen eskutik hartutakoak. Haatik, Andres Diharasarri alkatearen garaian hartu ziren neurri horiek. Alde batetik, bere mandatuaren onartu baitzen herriko

Plan Municipalak, 1999an, gaur egun Zelaletako lezeak babesten dituen araudi bakarra eta enpresak abian jarri nahi duen metodo berriko leherketak galarazten dituen. Eta, bertzetik, gaur egun indarrean dagoen lizentzia 2003an eman zuelako. Hain zuzen, ustiapen berriarekin hautsi diren arauak nahiz lizentzia, eta enpresak betetzen ez dituen baldintzak Diharasarriren agintaldian ezarri ziren.

UDAL ADIERAZPENA

Europara iristen diren errefuxiatuekin elkartasuna

I. IMAZ

Irailaren 30eko Udal Batzarrean, Urdazubi Elgarrekin taldeak proposaturik, eta Azkar taldeak ontzat hartu ondoren, Herriko Etxeko 7 zinegotziek aho batez onartu zuten Europara ailegatzen ari diren milaka eta milaka errefuxiatuei elkartasuna eta laguntza ematea. Adierazpenean, errefuxiatuei adierazten zaien elkartasunaz aparte, haiei laguntzeko konprometua ere hartzen da. Era berean, dagokien erakundeei, milaka pertsona horiek errespetu eta duintasunez tratatzea eskatzen zaie. Herritarrek, mugimendu sozialak eta bertze erakunde publikoak ere pertsona errefuxiatuek dituzten eskubideen alde mobilizatzea deitzen di-tu Herriko Etxeak, eta Estatu nahiz Europa mailako konpetentzia izan arren, adierazpenak jasotzen duenez «Urdazubitik ahal dugun guztia egingo dugu aterpe-hiri sare batean parte hartzeko. Giza eskubideekin eta bizitzarekin konprometua duten herriak nahi ditugu, harrotasunez sentitzen ditugun herriak».





10 SARRERA
ZOKETATUKO
DITUGU
urtean zehar



IGANTZI
NAFARROA
Tel +34 948 928 922
www.irrisarrieland.es



SARA

KULTURA → BURUILAREN 12TIK 16RA

'Astelehen urdinak' musika saioa Euskal Irratietan

Joanes Garcia eta Patxi Dutournier herriko musikazaleen eskutik

Joana GERENDIAIN

Joanes Garcia Baturco eta Patxi Dutournier-ek, Sarako bi musikazale amorratuek, erabaki dute beraien musikaren afizioa Euskal irratietako uhinetatik pasaraztea. Eman-kizuna *Astelehen urdinak* urriaren 12tik landa entzuten ahal da arra-

tseko 9etatik 10ak arte eta pop, rock eta folk musikaren berri emanen dute. Emankizunak hiru atal ukanen ditu, lehen parte batean musikaren aktualitatea segituko dute, bigarrenean kantu zaharrak eguneratuko dituzte eta azkenik artista, mugimendu musikal edo herri bateko musika eszena aztertuko dute.

Euskararen sustengua

Herritar talde batek eta Euskalzaleen topagunea elkarteak bultzaturik hiru bilkura antolatuko dira euskararen



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Dutournier eta Joanes Garcia herriko musikazaleak.

sustengueren inguruan. Heldu den bilkura urriaren 31n egingen da, larunbat goizarekin, Lur Berri gelan, 9etatik eguerdi arte. Deneri irekitako bilkura horietan gogetatuko da nola sustatzen ahal den euskarara Saran, proiektu bat muntatzeko xedearekin.

Errugbia

Aurten errugbian ekipa bakarra ari da, lehen matxairailaren 20an galdu zuten Arrangoitzeren kontra, 19-8. Irailaren 27an Saint Jean de Marsacq-en kontra irabazi zuten 17-9. Urriko lehen asteburuan 24-3

galdu zuten Pouilloneko taldearen kontra.

Eskubaloia

Esku baloian, aurten bost ekipa badira, 11 urte azpitik seniorrak arte. Seniorrek beraien lehen matxairailaren 19an galdu zuten Atarratzeren kontra, 24-23.

Urriaren 3-4ko asteburuan, esku baloian 11 urte azpikoek galdu zuten 16-12 Baionaren kontra, 13 urte azpikoek ere 20-8 Senpereren kontra; 15 urte azpikoek ere 23-13 Nafarroaren kontra eta 18 urte azpikoek ere 25-10. Seniorrek berdinketa lor-

tu zuten Mourenx-en kontra 17-17.

Aipatzekoa da Sarako urtxintxak elkarteak esku baloi eskola bat baduela, 6 eta 9 urte arteko haurrentzat. Maila horretan ez da konpetiozirik, baina hilabetean inguruko esku baloi eskolekin topaketak egiten dira haurrak jolas-teko. Entrenamenduetan haurrek ikasten dituzte kirola honetako lehen urratsak, ortzirale-tan egiten dira polikiroldegian, arratsaldeko 5etatik 6ak 15arte. Beraz zuen haurrak kirola hori deskubritu nahi badiateak irekiak dira.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

OSPAKIZUNAK → OMENALDI HUNKIGARRIA

Larreko bertsularia omendu dute bere izena duen kultur etxean

Ondotik, herriko lehen liburu azoka iragan zen, liburu andana batekin

Franck DOLOSOR

Jean Pierre Soudre, Ixtirlarte, *Larreko* bertsulariari omenaldi hunkigarria egin zaio berriki bere izena daraman kultur aretoan. Ttitto Agerrek landu duen egurrezko zizel lana kultur etxearen sartzeari ezarri dute herriko etxeko ordezkariak, Pierre Marie Nousbaum auzapeza buru zutela. Zurrezko piezak bi buru eta bi aho irudikatzen ditu, menturaz Larreko eta Matxin Irabola bertsulari senpeteraren aurpegiak!

Larrekoaren seme alabek bihotzetik eskertu zituzten Ttitto eta hautetsien hitzak aita zena gogoratu eta ohoratzeke. Ehunka bertsu eder bezain sakon; eta *Senperen Kantuz* gure herriaren ereserkiaren egile izan zen Soudre. Preseski, Eneko Bessonart eta Martxel Bravek kantatu zituzten Senpereren edertasuna eta abertasuna laudatzen di-

tuen bertsua. Senperen besta guti ospatzen da Larrekoren bertsurik musikatu gabe. Omenaldiaren ondotik, herriko lehen liburu azoka iragan zen Larreko aretoan arrakasta handiarekin eta euskarazko liburu andana batekin. Zaldubi ikastola, Gantxiki trinketea, Jean Ithourria plaza eta Larreko kulturgunearen ondotik, Senperen Matxin Irabola izena daraman toki publikoa bertzerik ez da falta. Hautetsiek ez dute ideia begi txarrez ikusten. Geroak erranen.

Catherinen lehen liburua

Senpereko Kilika argitaletxeak Victor Iturria gudari ohi saratarraren biografia plazaratu du Catherine Marchand Senpere aldeko berriketariaren eskutik. Nor-tasun handiko gizona, kontrabandista izana, Charles de Gaulle jeneralarekin bat egin zuen 1940ean munduko bigarren gerla denboran. Gaitzeko ibilbidea izan zuen Iturriak eta bere gora beherak aztertu, miatu eta argitaratu ditu Marchand La Semaine du Pays Basque astekariko kazetariak. Ba-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Larreko bertsulariaren familia, Ttitto Agerre zizelkaria, Eneko Bessonart eta Martxel Brave kantariak, Pierre Marie Nousbaum auzapeza eta Anne Marie Daugareil kultura auzapezordearen inguruan.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Victor Iturriaren biografiaren aurkezpen egunean, Catherine Marchand berriketariaren inguruan, bertzeak bertze 89 urte dituen Jeanne Iturria ihalartarra eta gudariaren koinata.

dira 20 urte Larrunaldetan dabilela Lyon-en sortu zen berriketari jendakina. Aste guziz gure lurraldearen eta hementxo herritarren ispilua eta bozgoragailua dira Ca-

therine Marchanden artikuluak. Lehen aldikoz, gai bat hautatu eta sakondu du, eta ez nola nahikoa. Kattalineki idatzitako biografia argigiki ikus liteke balore

handiak eta konprometuz sutsua izan zituela Victor Iturria saratarrak. Churchill eta Eisenhowerrek lapurtarra aipatzen dute beren memori-tan.

KANBO ETA ITSASURAT JOATEKO

Bi serorek parropia utzi dute berriki

F. DOLOSOR

Senpereko bi serorek parropia utzi dute berriki Kanbo eta Itsasurat joateko eta beraz ez da gehiago eliza emazterik gure herrian. Baziren 21 eta hiru urte Michèle eta Louise serorak gure artean bizi zirela apezka, eta oro har girixtinoak laguntzeko eta eliza edertzeko. Aldaketa

handia da denentzat baina fedea eta bokazio direlarik ez dela sekulan sufritzen aitortu du Michèle serorak. Parte hartu duten azken mezan ehunka herritar bildu ziren haiek agurtzeko eta eskerrak emateko. Apeztxea hutsa geldituko baita baliteke Donejakue bideko aterbea bilakatzeko.



sarobe®
gozotegia okindegia

p^o de ezteğara 25 bajo
34780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net



JAXONE-GOZOTEGIA

*Bañueloak eta
etxeko produktualak*

Altzate, 19 · BERA · Tel: 948 630 786



Lore-denda

ESTHER

Larunbat arratsaldeak
eta igandeak irekia

Krisantemoak, azaleak, ziklomenak
zentru artifizialak eta naturalak

Bisitatu gure postua
Elizondoko ortzegunetako merkatuan
eta Elizondoko ferietan plazan

NARBARTE • T. 948 59 22 00

SOULE
HILETA ARTEA


T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN



Donexiteben-Beran-Elizondon
ORDUTEGIA 9:00 - 13:30 GOIZEZ
16:30 - 20:00 ARRATSALEZ



Merkaopari
www.merkaopari.es



AZAROAK 1 SANTU GUZTIEN EGUNA

Erlijoak eraginda edo familiako ohiturak segiz, baina gehienok ospatu ohi dugu modu berezian azaroaren 1a. Eliza Katolikoaren-dako, Domu Santu da, hildako guztiak gogoratzeko eta omentzeko eguna. Hilerrietara loreak eman, mezetara joan eta familiak elkarrekin bazkaltzeko ohitura oso zabalduta dago sinesdunen artean. Sinesdunak ez direnendako ere, kutsu erlijiosotik haratago, hildakoak modu berezian gogoratzeko eguna bihurtu da. Gaur egun fede katolikoa bere gorenean ez dagoen arren, gure kulturen, erabiltzen dugun egutegian, dauzkagun ohituretan... duen eragina agerikoa da. Horregatik, jai eguna izanik, zer edo zer berezia egin ohi da azaroko lehenbiziko egunean. Batzuk mendira igotzen dira, bertzeek hildakoaren errautsak botatako tokia bisitatzen dute, loreak ere eramaten dituzte bertara, lagunarteko bazkari bat egiten dute... Norberak bere erara, ohiturak garai berrietara moldatzen joan dira. Azken finean, helburua bakarra da; maite dituzun horiek gogoan izatea.



SANTU GUZTIEN EGUNA GOXATZEKO..

Domu Santu eguna zapore berezi batzuekin lotzen da; haize kruxpeta eta santu-hezur gozoen zaporearekin. Sasoiko gozokiak dira, aunitzek, data horietan bakarrik jaten dituztenak. Bazkaria mokadu goxo batekin akitzeko, eskualdeko gozotegietan eskaintza zabala izaten da. Norberaren esku geratzen da gustukoena aukeratzea!

HAIZE KRUXPETAK: Sei osagai nahasita lortzen dira Domu Santu eguneko gozoki tipiko hauek. Ura, gurina, azukrea eta gatz ximiko batekin egiten da oreka, gero irina gehitu eta arrautzak azkenik. Olio ugaritan frijitu eta ongi xukatu ondoren, azukre hautsa botatzen zaie gainetik. Krema, esne-gain edo txokolatez beteak topatuko dituzte.

SANTU-HEZURRAK: Mazapan orearekin egindako tututxo hauek, bere itxuragatik hartzen dute izen berezi hori. Tradizionalenak arrautza gorringoz betetakoak diren arren, eskualdeko gozotegiek aukera zabala eskaintzen dute: txokolatez betetakoak, marmeladaz, aingeru-adatsaz.... Ez da erraza gustukoena aukeratzeko.

LORE FRESKOAK MAITASUNEZ EGINDAKO ESKAINTZA

Azaroko lehenbiziko egunean, hilerriak usain eta kolorez jantzi ohi dira. Domu Santu egunean, jendeak hilerrietara lore freskoak (moztuak eta landareak) eramateko ohiturari eusten dio eta. Krabelinez, arrosaz, lirioz... osatutako lore sortak eskuetan, urte osoan adina jende egiten du hilerrira bisita ordu gutxi batzuetan. Dena den, hilobiratu ordezt geroz eta jende gehiagok erabakitzen duenez erraustea, lore-sorta hauek, errautsak banatutako tokira eramateko ohitura ere zabaltzen ari da.

Lore-sorta, maitasunez hildakoari egiten zaion eskaintza da, falta direnak omentzeko modua. Horregatik, lore-denda eta haztegi-etan milaka lore izaten dira aukeran, mota guztietako eskakizunei erantzuteko.

Lore-sorta osatzeko orduan, komeni da denbora dezentean frexko mantentzen diren loreak aukeratzea. Horregatik, krabelinak, krisantemoak eta liliumak dira gehien saltzen direnak. Larrosak eta margaritak ere aunitzek aukeratzen dituzte, sorta benetan dotoreak osatu litezkeelako.

Urtetik-urtera, kolore eta lore deigarriagoak geroz eta gehiago erabiltzen dira: morea, fuksia, arrosa, horia... Hala ere, oraindik krabelin zuri-gorriak dira arrakastarik handiena dutenak. Lore sortari elementu berderen bat gehitzea ere gomendatzen dute. Hos-toak, iratzeak, kamelia adarrak... lorrekin konbinatzen badira, konposizioak itxura osoagoa lortzen du.



FLORISTERIA
IRIS
LOREDENDA

DOMISAINDU
EGUNERAKO
ESKAINTZA
BEREZIAK
LOREAK ETA
LANDAREAK
ENKARGUAK
HARTZEN DIRA!

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK
ENKARGUAK HARTZEN DIRA

**LURRAREN
EGUNEAN
URRIAK 25
IREKIA**

ZU loredenda
dekorazioa
osagarriak

Altzate, 33
31780 BERA

zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

OMISAINDURAKO
LORE ETA LANDARE
ESKAINTZA ZABALA

Beko

LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu
omisaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu



Astelehenetik larunbatera:
09:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak: 10:00-13:00
Otsango auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

AUKERA HANDIA kalitatezko produktuetan

DOMISAINDU EGUNERAKO

LOREETAN ESKAINTZA ZABALA

Ongarriak eta
ongarritzeko gaiak

Landareak, loreak,
fruta-arbolak

Lore-konposizioak

Etxe barrurako zein
kanporo landare eta
arbolak

Dekorazio osagarriak,
loreontziak eta
jardinerak

Lorategirako
erremintak

Landiflor

Landiflor zure loredenda egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 18.30
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com

Dantxarinea Ibarra Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

**VENTA
PEIO**
Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Fernando Diaz Sanz eta **Maria Iraola Jubera**, Iruñea eta Doneztebekoa, irailaren 5ean.
Jose Maria Sestorain Rubia eta **Maitane Odriozola Etxegoien**, Leitza eta Goizuetakoa, irailaren 26an Goizuetan.
Gabriel Fuentes Nieto eta **Maria Concepcion Calvo Herrador**, Sunbillakoa, irailaren 22an.
Fernando Diaz Sanz eta **Maria Iraola Jubera**, Iruñea eta Doneztebekoa, irailaren 5ean.
Miguel Otxandorena Martiarena eta **Elvira Romay Fernandez**, Elgorriaga eta Urrozkoa, Donezteben urriaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Irati Eskudero Elizburu, Goizuetakoa, irailaren 24an.
Urki Larralde Arotzena, Goizuetakoa, irailaren 28an.
Aintzira Olalde Alduntzin, Leitzakoa, irailaren 18an.
Ander Mutuberria Urreaga, Doneztebekoa, irailaren 20an.
Einar Lazkano Retamosa, Lesakakoa, irailaren 26an.
Itzea Lukanbio Astiasaran, Zizurkilgoa, urriaren 2an.
Urko Mendiburu Iriarte, Narbartekoa, irailaren 26an.
Ibai Telletxea Sein, Igantzakoa, irailaren 24an.
Ekain Telletxea Telletxea, Ezkurakoa, irailaren 22an.
Ruben Telletxea Erasun, Ezkurakoa, urriaren 1ean.
Enea Hualde Goñi, Zubietakoa, urriaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Isabel Marzol Labaien, Aresokoa, irailaren 25ean, 94 urte.
Juxti Otxandorena Petrikorena, Elizondokoa, irailaren 25ean, 88 urte.
Romualda Arraztoa Iturralde, Irurita-koka, irailaren 25ean, 87 urte.
Maria Olano Baraibar, Leitzakoa, irailaren 25ean.
Amaia Gogortza Oronoz, Leitzakoa, irailaren 28an, 41 urte.
Eva Ugalde Telletxea, Berakoa, urriaren 2an, 47 urte.
Maria Loreto Madariaga Matxikote, Igantzakoa, urriaren 4an, 83 urte.
Josefa Ondarrola Arozena, Goizuetakoa, irailaren 26an, 98 urte.



Eva UGALDE TELLETXEA

Beran, 2015eko urriaren 2an

*Hitz bat ahazten da,
malko bat joaten da,
baina adiskidetasun
eder baten oroitzapenak
inoiz ez dira ahaztuko.*

*Gure adiskidetasuna denboraren,
urruntasunaren eta isiltasunaren
gainetik dago. Badakizu zergatik?
Betirako gure bihotzean zaudelako.*

ZURE LAGUNAK



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

VIII. URTEURRENA

*Seguru urte aunitz pasako direla
eta hau zortzigarrena bertzerik ez dela izanen.
Baina urteak kontatu ahal izateak berak
zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

ZURE FAMILIA



Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan, 2009ko urriaren 20an

VI. URTEURRENA

*Udazkeneko hostoen antzera joan zinen
eta gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizitzen garen artean,
ez zaitugu ahaztuko.*

ASKO MAITE ZAITUGU

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA

MOTORRA → LUR GAINEKO TXAPELKETA

RAC Focus Kopa irabazi du Iñaki Ubiria auto gidari lesakarrak

Urriaren 17an Larraintzarren eginen den azken rallyaren faltan, behar zituen puntuak pilatu ditu

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Iñaki Ubiria Etxarte auto gidari lesakarrak, Gorka Biain azpeitiarra kopiloto duela lur gaineko RAC Focus Vasconavarro kopa irabazi du aurtan, oraindik bu-

katzeko proba bat egiteko falta dela. Hain zuzen, urriaren 17an Larraintzarren jokatu da Ultzamako rally hori, baina lesakarrak orain artean erakutsi duen erregularitasunari esker, txapeldun da gaurgero.

Kantabriako Santillana de Mar herrian uzta-tilaren 4an jokatu to proban irabazle izan zen Iñaki Ubiria eta bertze hirutan (Naxeran maia-tzaren 2an, Tierra Baños de Rioja-Villalobarren abuztuaren 22an, eta irailaren 20an Arnedon)



ARGAZKIAK: AITOR MARTINEZ

Gorka Biain azpeitiarra eta Iñaki Ubiria auto gidari lesakarra.

bigarren. Hortaz, Larraintzarren egiten duena egiten duela txapeldun da lesakarra. Ubiriak aipatu digunez, «txapelketan izan den berdintasunaren seinale, proba bakoitzak irabazle ezberdina izan du. Baina guk proba guztiak bukatu ditugu eta postu txarrean 2.a izan da».

Duela urte mordo-ka karts karreretan hasi zen Ubiria, eta Euskadiko txapelketan hi-

rugarren ere izan zen. Baina azken 7-8 urteetan rallyetan ari da. Lur gaineko txapelketa honetan ez ezik, asfaltoan ere aritu da, Jaizkibelgo Igoeran erraterako.

**AGINAKO VI. IGOERA
URRIAREN 31N**

Lesakako motorza-leek zorionerako bertze arrazoi bat badute. Izan ere, 2007az geroztik ez zen rallyrik ikusi herri-

an, baina urriaren 31n eginen da Agiñako igoeraren seigarren edizioa, Nafarroako Mendi Txapelketa eta Nafarroako junior txapelketa jokoan izanen dituen.

Urriko azken larunbat goizeko 8:30etik 11etara eginen dituzte egiaztapenak. 14:00etan entrenamenduak hasiko dira eta ondoren lasterketako bi mangak. Sari banaketa 20:00etan eginen dute.

AIZKORA → URRIAREN 4AN ETXARRI-ARANATZEN

Iker Vicente ezustean Nafarroako txapeldun

18 urterekin, txapelketa nagusia irabazi duen aizkolari gazteena da Otsagikoa

TTIPI-TTAPA |

Otsagiko Iker Vicente Saralegi gazteak irabazi du Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketa. Finala urriaren 4an jokatu zen Etxarri Ara-

natzen eta Vicentek ezustea eman zuen bizkarreko arazoekin dabilen Floren Nazabal menperatuta. 18 urte bertzerik ez ditu Iker Vicentek eta Nafarroako txapelketa nagusia irabazi duen aizkolari gazteena da. Aunitzek, Mindegia, Larretxea eta Nazabal beraren ondorengo ikusten dute Iker Vicente.

Aizkolari bakoitzak lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko

moztu behar izan zituen Etxarrin. Hasieran, Nazabal aitzinetik ibili zen, baina zortzigarren enborra korapilatu zitzaion eta hamargarren txapela janztea eragotzi zion. Vicentek, berriz, hasieratik jarri zuen erritmoari eutsi eta ezustea emateko gai izan zen. Juan Jose Lopez hirugarren izan zen, eta Jon Rekondo eta Ruben Saralegi leitzarrak laugarren eta bosgarren izan ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Floren Nazabalek jarri zion txapela Iker Vicenteri, nolabait lekuko eta belaunaldi aldaketa irudikatuz.

HERRI KIROLA → EUSKAL HERRIKO KOXKOR BILTZEA

Etxegarai eta Ariztegi berriz ere txapeldun

Nafarroako arpana txapelketa mistoan, Itxaso Onsalo aresoarra eta Mikel Eugi txapeldun

TTIPI-TTAPA | IGANTZI

Beterania garrantzitsua dela erakutsiz Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi zuten irailaren 27an Igantzin Berako Fernando Etxegarai eta Iturengo Maika Ariztegi.

Gizonezkoen koxkor biltze txapelketan lana gogotik egin behar izan zuen Fernando Etxegarai beratarak. 6 minutu eta 23 segundo behar izan zituen lanak burutzeko eta bere txandan nagusitasunez irabazi zuen. Baina bigarren txandan lehiatze-koak ziren aurtan Nafarroako txapela kendu dion Berriozarko Eder Goldarazena eta Gipuzkoako txapeldun den Baliarraingo Eneko Garmendia. Bi hauek lehia estua izan zuten eta azkenean nafarra nagusitu zen, baina Etxegarai baino 80 zentesima gehiago behar izan zituen 50 koxkorak biltzeko. Garmendiak osatu zuen podiuma. Gisa honetara, Berako kirolariak bederatzigarren aldiz irabazi du Euskal Herriko koxkor biltze

txapelketa, Nafarroan 2. izan den urtean.

Emakumeen koxkor biltze txapelketan, berriz, Maika Ariztegi iturrendarrak Arabako bi kirolari izan zituen arerio eta berdintasun handia izan zen. Zati handi batean, Ariztegiren aitzinetik ibili zen Zuriñe Frutos, baina azken aurreko koxkorra saskiratze-rakoan hutsegini eta azken orduan aurea hartu zion iturrendarrak, 7 segundorengatik (7:34 behar izan zituen Maikak). Nerea Irciok osatu zuen podiuma. Maika Ariztegik hamalau aldiz irabazi du gaurgero Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa.

NAFARROAKO ARPANA TXAPELKETA MISTOA

Hirugarren aldiz Nafarroako arpana txapelketa mistoa jokatu zen Igantzin. Aurtengoan, 45 ontzako enberrari hamar ebaketa egiten bizkorrenak Aresoko Itxaso Onsalo eta Beunzako Mikel Eugi izan ziren. Bigarren postuan Iraizozko Josetxo Barberena eta Elsoko Ana Iraizoz sailkatu ziren eta hirugarrenean, Berako Nerea Sorondo eta Arostegiko Julen Kañamares. Abiadurako proban (ebaketa bat nork lehenago egin), bi lehenbiziko postuak alderantziz izan ziren, zentesima eskas batzuen-egatik: Barberena eta Iraizoz garaile, eta Onsalo eta Eugi bigarren.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Hiru txapelketetako podiumak osatu zituzten kirolariak, batera. Beheitian, Maika Ariztegi, Fernando Etxegarai, Itxaso Onsalo eta Mikel Eugi txapeldunak.

NAFARRAKO ARPANA TXAPELKETA MISTOA

1	Itxaso Onsalo-Mikel Eugi	4:33
2	Ana Iraizoz-Josetxo Barberena	4:47
3	Nerea Sorondo-Julen Kañamares	5:17
4	Ainhua Iraizoz-Oier Kañamares	5:39
5	Jone Hualde-Imanol Kañamares	5:53
6	Itziar Nuñez-Adrian Berruezo	6:00
7	Ana Lopez-Alberto Oteiza	6:38
8	Marian Otxoa-Mikel Zubiria	7:57

Igantziko herri kirol saio ikusgarria, ohikoa denez, herriko gazteek eskainitako proba konbinatu bereziarekin eta giza-proba eta sokatira nahasten zituen saioarekin bukatu zen.

ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA
Igantziko gazteek lehia ikusgarria eskaini zuten.



KOXKOR BILTZEA

1	Maika Ariztegi	7:34
2	Zuriñe Frutos	7:41
3	Nerea Ircio	7:51

KOXKOR BILTZEA

1	F. Etxegarai	6:23
2	E. Goldarazena	6:24
3	E. Garmendia	6:40
4	Aritz Martin	6:59
5	Aritz Ruiz	7:02
6	Xabat Erleaga	7:10
7	J. Goikoetxea	7:13
8	Gari Uriarte	7:24

urriak 15 - urriak 29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ospakizunak



LESAKA | 2015.10.24

Bertsoen bueltan mende laurdeneko ibilbidea ospatuz

Bortzirietako Bertso Eskolak 25. urteurrena ospatuko du urriaren 24an. Bezperan Unai Iturriagak hitzaldia eskainiko du Harriandoan.

Jardunaldiak



LEITZA | 2015.10.25

Udazkeneko basoko altxorak karrapean ikusgai

Mikologialdiaren baitan, egun handia izanen da igandea. Ehundaka espezie biltzen dituen erakusketa mikologikoa, eskulan tailerak, dastaketak... antolatu dituzte.

Kontzertuak



IGANTZI | 2015.10.24

Txantreako Arturo Kanpion abesbatza elizan kantuan

Iruñeko abesbatzak kontzertua eskainiko du 20:30ean. Truke bat izanen da eta Igantziko Abesbatza Txantrean ariko da kantuan, azaroaren 28an.

'Nebraska'

Urriaren 30ean eta azaroaren 1ean filma ikusgai. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

ARANTZA

'Denok akuriak'

Urriaren 25ean, dokumentala Baskulan 17:00etan.

ELIZONDO

'Larre motzean' dokumentala

Urriaren 15ean, arratsaldeko 7etan Arizkunenean.

Erakusketak

BERTIZ

'Nire basorako bozetoak'

Urriaren 1etik azaroaren 2ra arte. Diana Iniestaren erakusketa ikusgai, Bertizko parke naturalean. (Egunero irekita: 10:30-13:30 eta 16:00-17:00etara).

Solasaldiak

LEITZA

'Hazien garrantzia elikadura burujabetzan'

Urriaren 15ean. Hitzaldia, bideo emanaldia eta tertulia. 19:00etatik aurrera, Ateakbeltzen.

DONEZTEBE

'Dementia duen pertsonarekin komunikazioa'

Urriaren 19an. Hitzaldia 16:00etan Doneztebeko Mankomunitateko aretoan. AFAN elkarteak eta Malerrek Osasun Etxeak antolatuta.

LESAKA

'Umorea txapelketan'

Urriaren 23an. Unai Iturriaga hizlari, Harriandoan 19:00etan. Bortzirietako Bertso Eskolaren urteurrenaren baitan.

DONEZTEBE

'Ta Malerrekaz ze?'

Urriaren 24an. Malerrekako oraina eta etorkizunaz mahaiingurua egiten dute, 11:30ean, Ernadi Rocken baitan.

ELIZONDO

'Brasilgo nekazal borroka eta borroka feminista'

Urriaren 29an. Saioa Iraola eta Beatriz Casadok hitzaldia eskainiko dute arratsaldeko 7etatik aitzinera Arizkunenean.

Lehiaketak

LESAKA

Beti Gazteren argazki lehiaketa'

Urriaren 31ra arte aurkeztu litezke lanak.

BAZTAN-BIDASOA

Ehiza jardunaldi gastronomikoen baitan Argazki lehiaketa

Azaroaren 29ra arte egonen da argazkiak bidaltzeko aukera. Lehen-dabiziko edizioa da aurtengoa. Xehetasunak 17. orrialdean

Ikuskizunak

ZUGARRAMURDI

Lezeetan emanaldia

Urriaren 24n, Erramun Martikorena, Iruñeko Orfeoiko kideak, Mikel Markez eta Baztango, Sunbillako eta Igantziko dantzariak igoko dira oholtzara 20:00etatik aurrera.

Zinea

LEITZA

'Alabama Monroe'

Urriaren 23an, eta 25an

Jardunaldiak

BAZTAN-BIDASOA

25. Ehiza jardunaldi gastronomikoak

Urriaren 25etik azaroaren 29ra eginen dira. Baztan-Bidasoa Turismoak antolatuta. Xehetasunak 17. orrialdean.

LEITZA

Mikologialdia

Urriaren 19tik 25era. Xehetasunak 32. orrialdean

SARA

Usoaren besta

Urriaren 18tik 25era. Xehetasunak 647. alean.

Kontzertuak

DONEZTEBE

Ernadi Rock jaialdia

Urriaren 24an, Eztanda, Egurra eta kitto, Txapelpunk, Orreaga 778 eta Tirri&tery DJ ariko dira 22:30etatik aurrera.

IGANTZI

Arturo Kanpion abesbatza emanaldia
Urriaren 24an, Txan-

PROPOSAMENA

BERA

Zentzumen guztiekin gozatzeko eguna

Lurak emandako fruituak ikusteko, dastatzeko, erosteko... aukera izanen da 29. edizioa beteko duen lurraren egunean. Giroa alaitzeko trikitilariak, txistulariak, txaranga... ibiliko dira karrikaz karraka eta bertsolariak eta dantzariak ere saioa eskainiko dute. Barazki, gazta, sagardo eta barazki-opil lehiaketa ere izanen dira urriaren 25ean Beran.



treako abesbatza eliz-
an ariko da kantuan
20:30etik aurrera.

Ospakizunak

BERA

**Euskara Mankomunita-
teak 25 urte**

Urriaren 12tik 16ra,
ekintzak antolatu
dituzte Kultur Etxean.
Xehetasunak
24.orrialdean.

BAZTAN

Nafarroa Oinez

Urriaren 18an. Baztan
Ikastolak antolatuta.
Xehetasunak 33.orrial-
dean eta 647. alean.

LESAKA

**San Fermin jubilatuko
Elkartearen eguna**

Urriaren 23an.
Egitaraua 20.orrialdean.

BERA

Lurraren eguna

Urriaren 25ean. Egun
osoan zehar ekitaldiak
izanen dira. Xeheta-
sunak 19.orrialdean

LESAKA

**Bortzirietako bertso
eskolaren 25.urrenaren**

Urriaren 25ean,
ikasle eta ikasle ohien
argazkia, bazkaria,
ekitaldia... xehetasu-
nak 20. orrialdean .

ARIZKUN

Kirikoketa besta

Urriaren 24an. Jo ala
jo Kultur taldeak 16.
urtez antolatu du besta
berezia. Egitaraua 35.
orrialdean.

ARANTZA

Baserritarren eguna

Azaroaren 1ean.
Ekaitza elkarteak
antolatuta, 20. edizioa
da aurtengoa.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



12etan bermuta

OSORO, JASONE

Elkar, 2015

Maitasuna, zeloak, altruismoa, egoismoa, in-
bidia, erresumina, beharra, kariñoa, men-
pekotasuna, miseria, errua, plazera, damua, de-
sesperazioa, nartzisismoa, beldurra, neurosia,...
sentimendu- sorta zabalaren sorleku dira harre-
manak, eta horiek denak eta askoz gehiago age-
ri ditu eleberri honetako protagonista Bertak, be-
re bizitzaren errepasoa egin eta inportanteak izan
diren pertsonetikiko solasean: ama, aita, alaba,
senarra, amama, anaia, maitalea, laguna...

Musika



Gure eroyak

BI BALA

Autoedizioa, 2015

Bueltan da Bi Bala. Bueltan da Alegia, Ataun
eta Orioko kideak biltzen dituen laukotea. Ka-
leratu zuten aurreneko diskotik urtebete ere iga-
ro ez denean (Wasabi, 2014), bigarren lana gau-
zatu eta argitaratu dute, *Gure eroyak* izenarekin.
Aitzol Barandiaran ataundarra eta Iñaki Gurru-
txaga oriotarra dira abestiaz arduratzen direnak.
Biak bertsolariak, azkenak gitarra jotzeko ardu-
ra ere bere gain darama. Hauetaz gain, Xabier
Etxeberria "Pitxu" (baxua) eta Julen Goikoetxea
(bateria) musikariekin osatzen dute taldea. Jasan-
go ote du Euskal gizarte posmodernoak bertso-
lari rockero hauen enbata?

Internet



arto artian

Musika txikien
katalogoa

WWW.ARTOARTIAN.ORG

Arto artian musika txikiak eta eskulanak bana-
atzeko sortutako katalogoa da. Ez dago musi-
ka estilo jakin batean oinarritua, bere helburu
nagusia gure inguruotako zenbait artista interesga-
rriren eta pertsonalen soinu-lanak sustatu eta
banatzea da. Bertan autoekoizpenak eta disketxe
txikiek argitaratutako grabaketak topatuko dituzte
erabiltzaileek. Izan ere, izaera horiek dituzten
mugak gainditu nahi dituzte web guneko ardura-
dunek katalogo honekin.

DONEZTEBE

Ernadi Rock

Urriaren 24an, Gazte
Asanbladak hirugarre-
nez antolatu du jai-
aldia. Egitaraua 26.
orrialdean.

Ibilaldiak

ARANTZA

**Arbolak ezagutzeko
ateraldia**

Urriaren 16an.
Parketik abiatuta
16:30ean.

LEITZA

**Leitza kaxkoz kaxko
zeharkaldia**

Urriaren 18an.
Mendibil BTT taldeak
antolatuta. Irteera
09:00etan Plazaolako
estaziotik.

BERA

**Kottoren
10.urrenaren
ateraldia**

Azaroaren 1ean. Goi-
zeko 10:30ean Altza-
teko plazatik abiatu
eta mendi irteera egi-
nen da Otsandara.

SARA

**Urri arrosaren baitan
mendi ibilaldia**

Urriaren 18an.
09:30ean abiatuko da.

Kirola

LESAKA

Aginako VI.igoera

Urriaren 31n. Goizeko
8:30ean hasita. Xeheta-
sunak 44.orrialdean.

ELIZONDO

**Euskal Herriko
II.Mailako Aizkora
txapelketako finala**

Urriaren 30ean. Egu-
erdiko 12:00etan hasita
Iriarte pilotalekuan.
Sarrerak: 10 euro.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagarriak base-
rriak, bordak eta
lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai,
mobleztatua. 2000
m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko
pisua salgai. Egoera
oso onean dago. 3
logela, jangela, egon-
gela, 2 komun, sukal-
de mobleztatua eta
17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Kantton Berri karrikan 77 m²ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea despentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m²ko terraza-ekin. Berritu beharra. **948 637359.**



ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. **646 774117.**

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58****info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LESAKA. Pisua salgai, herri erdian, eguzkitsua eta oso ondo kokatua. Hall, sukaldea, arropa zintzilikatzeko tokia, 2 logela, egongela handia, komuna eta trastelekua. Aukeran garaje plaza, beste trasteleku batekin. Igogailua garajeraino. Sarbideetan oztoporik gabe. 186.000 eurotan. **657 708866.**



ELIZONDO. Pisua salgai. **639 419955.**

ERATSUN. 2 borda salgai, bere lurrekin. Goizez deitu. **620 676886.**

LESAKA. 98 m²ko pisua salgai, 3 logela, bainugela, egongela, subajuarekin. Sukaldea despentsarekin eta mo-

bleztatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederra. Bizitzera sartzeko prest. **609 445769**

ETXEBIZITZAK

erosi

ZONALDEAN. Etxea, baserria edo borda erosiko nuke. Ez du inporta zein egoeratan dagoen. **626 226774.**

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Logelak alokatzen ditugu (aste osorako), sukaldea ibiltzeko aukerarekin. Prezio berezian zonaldean lanean ari direnentzako. Urrik aitzinera. Galde-tu konpromisorik gabe. **948 637862 / 678 855056.**

ETXALAR. Etxebizitza unifamiliarra errentan eman nahi da, sukalde-egongela, bi logela, bi komun, portxea eta etxe

inguruko lur eremuarekin. Heretik 5 minutura. Mobleztatua. Errenta, hilean 490 euro. **661 898970.**

ORONÓZ-MUGAIRI.

Pisua errentan eman nahi da. Logela bat, jangela-egongela, sukaldea eta bainugelarekin. Urbanizazioan tenis pista eta igerilekua ere badaude. **647 237186.**

BERA. Logelak eta apartamentua errentan emateko. **654 385363.**

LESAKA. Ote karrikan pisua errentan eman nahi da. Sukalde elektrikoa eta beheko sua, ganbara, balkoia eta baje-
rarekin. **661 262531.**

ORONÓZ-MUGAIRI.

Pisua errentan eman nahi da. Urbanizazio pribatuan, igerileku, tenis, frontoi eta jardin komunitarioekin. Azken solairua. Egongela-sukaldea, logela bat, komu-

na, trasteroa, garajea, berogailu instalazioa, igogailua. Mobleztatua. Argazkiak fotocasan. Errenta, hilean 350 euro. **661898970.**

BERA. Altxate plazan 85 m²ko etxebizitza errentan eman nahi da. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde handia eta berogailua ditu. **685 727560 / 665 716126.**

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

Elizondón lanean ari den neska bat naiz eta logela/pisua bilatzen dut errentan hartzeko hila-bete batzuetarako. **618 207297.**

GARAJEAK/LOKALA

errentan emateko

DONEZTEBE. Herri sarreran dagoen 165 m²ko lokal komertziala errentan eman edo saldu nahi da erretiroagatik. Hagitz argitsua da, erakusleho ederrekin. Interesatuak deitu konpromisorik gabe **630 510918** telefonora.



BERA. Julio Caro Baroja karrikan 10.ean, bajera haundia errentan eman nahi da. Hagitz argitsua. Ura, argindarra eta komun ttiki bat

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(irailaren 25etik urriaren 2ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 26 €

Zerri gizena
1,155 € kiloak.

Zerramak:
0,410 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,06

1.koa 3,90
2.koa 3,62

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,23
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 150,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,60/8,60
8-10 kilokoak: 7,30/7,50

dauzka. Prezio negoziagarria. ☎948 630257

BERA. Bidasoa karrikan, Telefonica ondolan, 35 m²ko garaje itxia errentan eman nahi, erosteko aukerarekin. ☎664 266 131.

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA Zurgindegi.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK Psikoanalista

ROSA BELZUNEGI PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 272011 (IRUÑA)

☎ 948 580975

Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

ZERBITZUAK klase partikularrak

Ingurumen Zientzietan Lizentziatua naiz eta Bigarren Hezkuntzan Irakasle izateko Masterra dut. **Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoan, Matematika, Natur zientziak, Kimika, eta Fisika** eskola partikularrak ematen ditut. Interesik baduzu, deitu inolako konpromisorik gabe ☎637 992570.

LANA eskariak

Gizonezkoa lan bila dabil. Asteburuetan egun osoan eta astean zehar arratsaldeko zazpietatik goizeko zazpiak arte aritzeko disponibilitatearekin. Gidari profesionala lanbidez, adineko eta haurrak zaintzen, ospitaleetan gaua pasatzen eta obrako lanetan ere esperientzia duena. ☎697 246133.

**ELIZONDO eta INGU-
RUAN.** 42 urteko emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko orduka edo inter-

na bezala. ☎644 879012.

Elizondo eta inguruan, lan bila dabilen emakumeak **adinekoak zaindu edo komertzioaren batean** lan egin nahiko luke. Behar izanez gero deitu. ☎606 552350.

Esperientziadun neska eskaintzen da **haurrak zaindu, adinekoak zaindu edota etxeko lanak egiteko**. Interesatuak deitu ☎672 568522.

Emakumea lan bila dabil **interna edo orduka**. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientziaduna. Garbiketa eta zerbitzari lanak egin edo lanbide berriak ere ikasteko prest. ☎631 369825.

Lan bila dabilen **gizon bat** naiz. Sektore desberdinetan esperientzia daukat: eraikuntzan, basoko lanetan, garraio-lari, abeltzaintzan... prest nago **edozein sektoretan lan egiteko**. Disponibilitate osoa. Interesa duenak deitu ☎608 720859.

LANA eskaintzak

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean zerbitzaria behar da. Frantses pixka bat jakitea beharrezkoa da. ☎948 599039.

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea behar da. Esperientziarekin. ☎948 599039.

Malerreka edo Bortziritan, eskualdeko pertsona bat behar da **fruta-denda** batean lan egiteko. Bidali curriculumak kifrut@gmail.com helbidera.

BERA. Ibardingo Beola etxean zerbitzaria da dendan lanean aritzeko jendea behar da asteburuetan. Interesa dutek bidali Curriculumak beola-etxea@gmail.com.

Zugarramurdiko Graxiana aterpetxean **logelak garbitzeko** pertsona bat behar da. Interesa dutenek ☎699 931072ra



OSOKO BILKURAREN AKORDIOA
—HIRIGINTZA—

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2015eko irailaren 24koa:

Udal Plan Orokorren aldaketa xehekatua, Illekueta 18.ean (223-224 lurzatiak, 11. poligonoa), hasiera batez onestea.

Espedientea jendaurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen direnrik.

Bera, 2015.10.02

ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre

deitu edo idatzi info@graxiana-aterpea.com.

LESAKA. Atxaspi hotelean garbitzailea behar dugu. Interesatuak deitu ☎948 637536/ 647 456611 edo idatzi la@atxaspi.com-era

MOTORRAK salgai



Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa

PEUGEOT PARTNER 4X4
2011ko MODELOA - 100.000 KM

FORD C-MAX
2012 URTEKOA - 80.000 KM

CITROEN C3 1.4 HDI
570 KM - BERRIA

VW POLO 1.2 TDI
5 ATEKOA - 2011 URTEKOA

VW GOLF 1.6 TDI
5 ATEKOA - TXURIA - 2012 URTEKOA

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Suzuki Vitara 1.9 ko-
txea salgai. Ongi zain-
dua. ☎948 637912.





ETXALARko UDALA

HERRIKO OSTATUA
ERRENTAN EMATEA

Udal honek lehiaketa irekirako deia egiten du *Herriko ostatu eta jatetxea* errentan emateko.

- **Errentamenduaren iraupena:** 5 urte, luzagarria.
- **Hileko errenta:** 365,00 euro lehenengo urtean, esleipenetik kontatzen hasita. Bigarren urtetik aurrera, hileko errenta 600 eurotik gorakoa izanen da (Udalbatzak onartuko du kopuru zehatza). Kopuru horiei dagozkien BEZa ezarriko zaie.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- **Behin-behineko fidantza:** 600,00 euro.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza pleguan adierazten direnak.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2015/10/23ko 12:00ak arte.
- Baldintza plegua interesatuen eskura dago Udaletxean eta udalaren web orrian (www.etxalar.eus)

Etxalar, 2015eko irailaren 30ean
Alkatea, Miguel M^a Irigoien Sanzberro



SANTESTEBAN TAILERRAK

CAPTUR ZEN DCI 90 CV
Nabigatzailea, klimatizadorea bi tonu, lanta beltzak, ...

MEGANE III LIMITED
DCI 95 CV
Klimatizadorea, 6 marxa, lantak, ...

Leitzoko errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

MOTORRAK
tailerrak



GANIX
Tailerra

J 948 63 06 69
Iturandeta, 6 **BERA (NA)**

ANIMALIAK salgai

Txerri bat saltzen dut, kanpoan hazia eta etxeko janari eta barazkiekin. 90 bat kilo ditu ☎948 637862 / ☎678 855056.

LEITZA. Hiru ahari salgai. ☎626 660675.

ANIMALIAK oparitzeko

LEITZA. Hilabeteko zakurrak oparitzeko. ☎948 510224.

Zakurra oparitzeko. ☎636 586335.

ANIMALIAK denetarik

Collie zakurkume bila nabil. Arra bada hobe eta aita eta ama Collie arrazakoak izatea. ☎687 222320.

DENETARIK salerosketak

Saxofoi bat erosiko nuke, haurrak ikasteko erabili dezan. Ahal bada Yamaha yas modelo. ☎639 869312/ ☎948 610504

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

ERATSUN. Lurreko sua salgai bere kristalerarekin. 150 euro. ☎948 615014/☎618 328079.

Merkatu Ttikiko
iragarki gehiago



hurrengo orrialdean

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Aunitz urtez **AMAIA!** Urriko bertze neska-txaz nola atzen-duko ginen? Muxu haundi bat lankideen partez eta ongi pasa!



Urriaren 12an, 57 urte bete ditu **JM IRAZOKI**. Zorionak auzoko lagun-partetik. Txanpaina noiz?



Irurritako **MIKEL AGUERRE** urriaren 6an urte bat bete du. Zorionak eta aunitz urtez Donamario familiaren partetik eta muxu handi bat.



AROA BERTIZ **JUANENEAK** 5 urte bete ditu urriaren 3an. AUnitz urtez eta muxu haundi bat Sunbilla eta Saldisko familiaren partetik.



PABLO IRAZOKI **OLAIZOLA** urdazubiarak 11 urte bete ditu urriaren 10ean. Zorionak eta muxu handi handia Sunbilla-tik.



Urdazubiko **ZUHAITZ BAZTERRIKA** **MASKOTENAK** eta **PABLO IRAZOKI** **OLAIZOLA** 13 eta 11 urte bete dituzte urriaren 7 eta 10ean. Zorionak biei eta musu haundi bana Landibar auzokoan eta zuen Mixina katuaren partez.



Urdazubiko **PABLO IRAZOKI** **OLAIZOLA** zorionak urriaren 10ean urteak bete dituelako eta 11 muxu handi gure mutiko maiteari etxekoan partez.



Goizuetako **JARE IBARRA** **TABERNAK** 4 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik!



ASIER 6 urte beteko dituzte! Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat Naroan partez. Ongi pasa eguna eta ongi ospatu!



IORITZ **IGUZKIAGIRREK** 3 urte beteko ditu urriaren 27an. Aunitz urtez atxa, ama eta berexiki Ainereren partetik. Muxu haundi bat!



Sunbilla **XUBAN JAUREGI** **GARTXITORENAK** 5 urte beteko ditu urriaren 28an. Urte askoz eta ongi pasa eguna. Ah, eta prestatu bizkotxo goxo goxo. Muxu potolo bat, Doneztebeko familiaren partetik eta berexiki osaba Koldoren partez.



Sunbilla **AIMAR VERTIZ** **BABACEK** urriaren 22an 2 urte beteko ditu. Zorionak bihurtuko! 2 muxu potolo Sunbilla eta Urrozko familiaren partetik eta berexiki zure arrebato Nahiaren partez, prestatu afari goxo!



Zorionak **ENERITZ!** Urriaren 23an sei urte beteko ditu. Muxu eta besarkada haundi bat aitabai eta amabaiaren partetik.



OLAIA HITA **ARANGUREN** igantziarrek urriaren 18an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez gure printzesa. Muxu potolo pila attatto, amatxo, Ainara eta gainontzeko familia guztiaren partez. Ongi pasa eguna eta prestatu berendu goxo guztiontzat!! Muxu aunitz printzesa!!



Berako **ATAXI** **SEBASEK** urteak beteko ditu urriaren 18an Zorionak **ATAXI!**



ONATZ eta **ADUR AROZENA** **ELRIK** urteak beteko dituzte urriaren 22an. Zorionak bikote! Ongi ospatu zuen bigarren urtebetetzea. Muxu haundi bat familiaren partez.



Zorionak **INTZA BERTIZ** **URRIZA** zure 3. urtebetetzean. Muxu haundi bat Narteko familiaren partez berexiki Ugaiz, Arene eta Oierren partez. Merendola goxo prestatu!



Aupa **JOSEBA!** Urriaren 11n urteak beteko dituzte! Zure familia eta lagun partez aunitz urtez! Ongi pasa. Euskal Presoak Euskal Herrira!



Aurtizko **MATTIN** **LEIZAK** urriaren 16an 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta ongi pasa eguna.



Urdazubiko **LEIRE** **GOMEZ** **GOIETXEK** 12 onddo beltz bilduko ditu urriaren 18an. Aunitz urtez eta musu mukurru bat familia guztiaren partetik!!



Altxako **IRXASOK** 6 urte beteko ditu urriaren 20an. Aunitz urtez aitabai, amatxi eta osabaren partez. Etorri zaitze bisitan, lata ematera! Espera egonen gara!



Inbiriarik izan ez dezazun... zuri ere zorionak **ARANTXA**, urriaren 28an urteak beteko dituzulako. Simona jarri behar genizun Arantxaren partez... Ongi pasa!

MERKATU TTIKIA

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramane da. ☎676 242520.



Bigarren eskuko musika instrumentuak salgai: akordeoiak, teklatuak, gitarra elektrikoak eta gitarra akustikoak. Informazio gehigarako ☎620 468282 edo ituriarribilly@gmail.com.



DONEZTEBE. Hiru sukalde ditugu salgai. Diseinu modernoa, Silestone enzimarekin, kalitate handikoak. Ezeazu galdu aukera bikain hau! Informazio gehigarako ☎630 510918.



Sei altzairuzko **fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



Bereta eskopeta salgai. AL-391 **URIKA-2/TEKNYS** modelo. 2012ko abenduaren 7an erosi. Tiro oso gutxi egindakoa eta oilagorretan bakarrik erabilia. Prezioa: 700 euro. Interesa baduzu deitu ☎ 647525516

DENETARIK galdu/aurkituak

Belarriko aparatua edo **audifonoa** galdu dut Beran. Norbaitek aurkitzen badu, dei dezala mese-dez ☎948 630765..

BERA. Toki Ona institutuko aparkalekuan giltza pareta aurkitu da. Ja-beak institutuko sarre-ran galdetu dezake.

Beran **betaurreko graduatuak**, patilla pasta beltzekoak, **aurkitu** dituzte Berako postetxearen ondoan. Zureak badira deitu ☎948 630177.

BILTEGI

EDANTOKIA | KAFETEGIA | JATETXEA

Elizondoko ferietako menua - 25€

- sarrera: garbantzoak | entsalada | arrain-zopa
- bigarrena: txuleta | bakailaoa
- postrea: mamia | samin-goxo | izozkiak
- etxeko ardoa eta kafea

T: 948.452.594 | Nafar Mendi merkatalgunea - Arraioz, Baztan
Astelehenetik ortziratera : 06.30 - 21.00 | Larunbatak : goizeko 8etatik goizeko biak arte



ttipi-ttapa



DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu :

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK: Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK: Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak ...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAHA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.eus www.kulturkari.com

29. Lurraren eguna

2015

Bera



Urriaren 24a Larunbata

15:30ean Ttikien Lasterketa

17:00etan Helduen Lizuniagako Igoera lamotenean

18:30ean 9.BARAZKI OPIL Lehiaketa

Trikitolariak Altzateko Frontoian

Argazki erakusketa Labiaga Ikastolan

Urriaren 25a Igandea

10:00etan Altzaten eskulangile eta elikadura azoka

Barazki erakusketa ere

10:30ean Altzateko plazan:

Txistulariak, Zeltiar musika, Irats trikitilariak.

11:00etan Bortzirietako 29.Gasna Lehiaketa

Musika eskolako trikitilariak.

12:00etan 18.Sagardo Lehiaketa Karnaxenean.

Gero, kalejira.

16:00etan Herri Kirolak,Txaranga, Sari banaketa, Enkantea,

Bertsolariak eta Dantzaldia (OHARKABE).

Egun guztian musika, taloak, jaki
eta edari dastatzeak.

**Goizeko 9etarako Lehiaketarako barazkiak,
gaztak eta sagardo botilak ekarri behar dira
R.Baroja Eskolara.**

